

Herririk Herri |3|

EAJ: "Izurtzako industriaguneaz informazio faltua zabaldu dabe"

Ekonomia |10|

Irakurketa guneak bultzatuko ditue herriko hainbat taberna eta dendatan



Berbaz |9|

U. Viscarret: "Indar txikiak batu eta zubi lana egin gura dogu elkarteagaz"



'Urrijena'-ren antolatzaileek martitzenean egin eben prentsaurrean ospakizunaren aurkezpena, Udaletxean. Iban Gorriti



Hainbat belaunalditako dantzariak Urrijenean

➤ 'Urrijena' lurretako dantzarien jaiak hiru hamarkada beteko ditu domekan.

➤ Aurtengo jaialdian 60 urtetik gora daukiezen dantzariak omenduko ditue.

2

•Durango

EAJk zerga eta tasak ez igotzea proposatu dau

4

•Abadiño

Babeseko 154 etxebizitzek badaukie jabea

6

•Elorrio

Udaltzainen asteburuko zerbitzua luzatu gura dau Udalak

7

•Otxandio

Hautzaindegi barria lau umegaz hasi da lanean

8

ZAINDU HAGIN KLINIKA

MARI TERE ZAMALLOA JUARISTI

- Odontologia orokorra •

eguerdietan zabalik

INPLANTEAK
(hainbat tratamendu mota)

ORTODONTZIA

PERIODONTZIA

AHO ESTETIKA

PROTESIAK, ...

Periodontzian espezializatua

Eskaintza bereziak umeentzat

Ferialeku, 1 behe • Abadiño • Tel.: 94 465 73 42

HERRIRIK HERRI >

DIURRETA

Belaunaldi askotako 17 talde batuko ditu Urrijenak

Urriaren 11n ospatuko dabe bosgarrenez, eta 60 urtetik gorako 70 bat dantzari omenduko ditue

Belaunaldi askotako 17 dantza talde batuko ditu, urriaren 11n, aurren bosgarrenez ospatuko den *Urrijenak*. Sasoi bateko dantzarien egunean plazan dihardueen —edo ikasten dabilzen— 15-16 urteko gazte-txoek zein 76-77 urteko dantzariak eskainiko dabe saioa. Jesarrita egongo dira nagusienak: horreen artean, nagusia, 91 urteko Gregorio Gorroño. Gogoratu dabe, ohi dabenez, 60 urtetik gorako dantzariak omenduko ditueela oraingoan be; denera, 70 inguru.

Montoian elkartuko dira 10:00etan, Goiuriko taldea, Oromiñoko bi, Arriandiko hiru eta Iurretako gainerako 11 taldeak Aita San Migel plazara kalejiran abiatzeko. Domingo Zuloaga buru

dela, meza ospatuko da 11:00etan. Ibarrangelukoa 1940an hasi zen abade Iurretan, eta Dantzari Dantza bertan ikasieban, gero Ibarrangelun erakutsiz: “Argitaratu barri dauen liburuan bertako abesti eta pasadizoak be batu ditu, eta meza emoten etorriko da. Oparia be emongo deusagu”.

Montoitik kalejiran abiatuko dira, 10:00etan, Aita San Migel plazara. Meza ostean, dantza saioa eskainiko dabe

‘Urrijena’-n elkartuko diren dantzarietan zaharrenak 91 urte daukaz; gazteenek 15-16



Bost urterik behin ospatzen dabe Iurretan *Urrijena*, herriko dantzarien eguna zena. Kepa Aginako

Dantza ikuskizuna

Agintariena eta *Ezpata txikiak* dantzatuko ditue guztiak; 76-77 urteko dantzariak be bai. Gazteagoek jarraituko dabe, *Zortzinangoa*, *Banangoa* eta *Txotxongiloga*. Saioa 12:00etan hasiko da. Familia argazkia eta garaikurren banaketa egingo dabe, Goiurira bazkaltzera joan aurretik.

Goiurian elkartuko dira bazkaltzeko Goiuria, Oromiño, Arriandi eta Iurretan jardundako dantzariak

1979an batuziren dantzariak lehenengoz bazkaltzeko; 1989an, bazkaltzeko ez eze, dantzarako be bai. Hori izan zen lehenengo *Urrijena*; 14 talde batu ziren orduan. Udalaren eta Bizkaiko Dantzarien Biltzarren, sei kofradien, Jai Batzordearen eta Gerediagaren laguntza eskertu dabe Mikel Deuna dantza taldekoek. ■ A.B.

GARAI

Dantzarien arteko bazkarirako txartelak salgai dagoz

Urriaren 24an herriko dantzariak elkartuko dira; omenaldia be egingo dabe egitarauaren barruan

Garaiko Udalak herriko dantzariak omentzeko jaia antolatzea erabaki dau urriaren 24rako, eta bertan ospatuko daben bazkarirako txartelak eskuratzeko aukera dago dagoeneko.

Egun horretako egitaraua guztiz zehaztu barik egon arren, bazkariaren prestaketa aurrera doa, denporaz ibili ahal izateko. Hain zuzen be, bazkarirako leku legez

Udaletxean dagoz txartelak salgai, eta eskuratzeko azkeneko eguna hilaren 14a izango da, eguaztena

Ekimen honen helburua 60 urtetik gora daukiezen dantzariak omentzea da

frontoia aukeratu dabe, eta eguerdiko 14:30ean hasiko dira. Umeei 10 euro ordaindu beharko ditue parte hartzeko, eta nagusiek, barriz, 20. Udaletxean bertan dagoz txartelak salgai, eta eskuratzeko azkeneko eguna hilaren 14a izango da, eguaztena.

Omenaldia eta erromeria

Bazkaltzera animatzen direnek, tripa ederto bete ondoren dantzatzeko aukera izango dabe, erromeria talde batek joko dau eta arratsalde partean.

Dena dela, zita nagusia eguna zabaltzeagaz batera etorriko da: dantza saioa. Gontzal Sarrigoitia alkateak adierazo deuskunez, “oraindino ez dago argi zenbat taldek hartuko daben parte; egitaraua be ixteko dago”. Helburua 60 urtetik gora daukiezen dantzariak omentzea ei da. ■ M.O.

BERRIZ

Parte-hartzaile asko batu ziren baselizen arteko ibilaldian

Aurren be Okangoko San Migel jaien antolatzaileek herriko 11 baselizen martxa antolatu eben egitarauaren barruan, joan zen domekan. Aurren Jose Luis Luzarren omenez egindako ibilaldia izan da. Hain zuzen be, orain 14 urte, martxa hori lehenengoz antolatu ebenean, Luzar bera izan zen antolatzaileetako bat. Aurtengo aldia, jendearen parte-hartzea nabarmendu dabe antolatzaileek. 74 lagunek parte hartu eben ibilaldian, eta bost orduan 23,5 kilometro egin zitueen.



Lan eskaintza publikoan izena emoteko aukera hilaren 16ra arte

Berrizko Udalak argitaratu dauen lan eskaintza publiko barrian izena emoteko epea urriaren 16an amaituko da. Guztira, 11 lanpostu betetzeko deialdia egin dabe.

Gizonen eta emakumeen arteko berdintasun, lan eta gazteri teknikari izateko lanpostu bat daukie; behargin bana behar dabe administrari laguntzaile, peoi eta begirale-sorosle postuetarako be. Eginkizun askotako lanak egiteko lanpostu bi dagoz, eta garbiketa langile moduan ibiltzeko, barriz, bost lanpostu.

Bestalde, Udalak urriaren 16ra arte luzatu dau begirale ikastaroa egiteko deialdia. Ikastaro horren ondoren jasotzen den moduko ziurtagiria eskatzen dau Udalak udan antolatzen dituen kanpamenduetan monitorea izateko. ■ J.D.

Guztira, 11 lanpostu aurreikusi ditue lan eskaintza publikoan

IZURTZA

“Industriaguneko AR2 egitasmoa geldiarazo egingo dau Gobernuak?”

Industriguanearen Zati Planari buruzko informazio faltsua zabaltzea egotzi deutso EAJk Gobernuari

Orain aste bi, Udalaren eta industriagunea zabaltzeko AR2 egitasmoaren bultzatzaileen arteko auziaren barri emoteko ezker abertzaleko gobernua egindako prentsurrekoan, “egiazkoa ez den informazioa zabaldu” ebala salatu dau EAJk.

O. Zarrabeitia: “Sententzian ez da inondik be Zati Planaren baliabakotasunaren inguruko ezer esaten”

Udal Gobernuaren asmoa Zati Plana bertan behera iztea ete den argitzeko eskatu dabe

Alkatetzan dagoen ezker abertzaleak egin eban EAEko Auzitegi Nagusiaren sententziaren irakurketaren kontra jeltzaleek dinoenez, “sententzian ez da inondik be Zati Planaren baliabakotasunaren inguruan berba egiten”. “Adierazten dena da, egitasmo horregaz bate-

ra, planak ingurunean izango dauen eraginari buruzko azterlana egin behar dela da”, nabarmendu dau Zarrabeitia bozerorale jeltzaleak. Etor Mendia zinegotziak, bestalde, AR2 deituriko Zati Plana “administratiboki dagoeneko oso garatua dago” dino, eta galdetu: “Plana bertan behera iztea al da Udal Gobernuaren asmoa?”

“Zalantza eragin dabe”

Sententziaren barri emoterakoan Lorea Muñoz alkateak industriaguneari buruz adierazitakoak, “herriar askogan zalantza eragin” dauelako, industriaguneari jago-konez emongo dituen pausuen barri emoteko eskatu deusie zinegotzi jeltzaleek Gobernu Taldeari.

Martitzenean Udaletxean egin eben agerraldian jeltzaleek nabarmendu eben, “1996an herriko hirigintzaren oinarriak zehazten ditueen arau subsidiarioak onartu zirenean, eta, ondoren, 2005ean udalbatzarrean aurkeztu zen AR2 egitasmoaren hasierako onarpena aurkeztu zenean, ezker abertzaleak ez eban kontraktasunik



Konponbideak eskatu deusie jeltzaleek Udal Gobernuari. I.E.

agertu”. Jeltzaleek dinoe orain gehiegizko ikusten daben instri-gunearen alde egin ebela orduan ezker abertzaleko ordezkariak: “orain 13 urte industriarako zehaztutako 54.000 metro koadroen eta ondoren 90.000 metrora zabaltzearen barri bazeukan sasoiko ezker abertzaleak”. ■ I.E.

Orain neurritz kanpoko ikusten daben industriagunearen alde egin ebala ezker abertzaleak dinoe zinegotzi jeltzaleek

DURANGALDEA

Euskara zerbitzuak batuz, gida sortu dau Mankomunitateak

Herriz herri eskaintzen ditueen euskara zerbitzuak edo ikastaro motak batzen dituen *Emon pausoa* gida kaleratu dau Durango Merindadeko Amankomunazgoaren Euskara Zerbitzuak. Horren baitan dagoz Durango, Elorrio, Zaldibar, Atxondo, Iurreta, Abadiño, Izurtza eta Mañaria. Azaldu dabenez, Amankomunazgoko herrietan euskara ikasteko bidea aukeratzen lagunduko dau gida hooeek.

‘Emon pausoa’ gidaren 19.000 ale banatu ditue, euskara ikasteko matrikulazioa sustatzeko

Amankomunazgoak “euskarak bizitzeko baldintzak sortzearen garrantziaz jabetuta” dihardu lanean. Bide horretan aurrerapausoak emon dira, “baina bidea falta da eta ezagutza eta erabilera zabaltzeko aukera barriak sortzen jarraitu behar da”. Horretan, eskualdean AEKren, Durangoko Udal Euskaltegiaren eta Hizkuntza Eskolaren lanari eta udalen inplikazioari “preminazkoa” deritzoe.

Euskara ikasteko matrikulazio epea zabaldua, hori bultzatzeko Amankomunazgoak eta udaletako euskara zerbitzuek euskara ikasteko bideak batzen dituen gida banatu dabe; denera, 19.000 ale. ■ A.B.

MAÑARIA

Eskola zabaltzea aztertuko dabe Hezkuntza Sailagaz

Gurasoen eskariari erantzuteko, urtea amaitu orduko batzartuko da Udala Hezkuntza Sailagaz

Herrian eskola txikia martxan ipintzeko herriko zenbait gurasok egin eben eskariari erantzuteko zer aukera egon leiteken aztertze bidean, Eusko Jaurlaritzako Hezkuntza Sailagaz batzarra egingo

Beste herri batzuetako eskola txikietako esperientziak ezagutuz hasi ziren igaz

dau datozen asteetan Udalak. Igaz, beste herri batzuetako eskola txikietako esperientziak ezagutu zitueen, bai gurasok bai Udaleko ordezkariak, eta Hezkuntza Sailaren mahai gainean zer aukera dagozen aztertzea da hurrengo pausoa, Udal Gobernuako ordezkariak azaldu deuskuenez.

Igazko udaberrian haurtzaindegiz zerbitzua estreinatu eta gero, sei urte arteko eskola txikia zabaltzeko zer zailtasun eta aukera dagozen aztertzen dabilzela azaldu deuskue Udalean. ■ I.E.

MALLABIA

Ikastaro barrietan izena emoteko aukera daukie mallabitarrek

Ikasturte honetan hainbat ikastaro antolatuko ditue eskoletan. Yoga ikastaroan astelehen eta eguaztenetan parte hartzeko aukera izango da Yolanda Napelegaz, irailaren 28tik aurrera. Soinu eta panderoa gogoko daukie nek martitzenetan izango dabe

hitzordua, Adolfo Jainagaz. Gazte eta helduek abesbatza parte hartu lekie, Iratxe Uribe Larrea gaz.

Informatika arloan, KZguneak askotariko ikastaroak eskainiko ditu. Interesa daukanak arratsalde KZgunearen egoitzara joan leiteke tutoreagaz berba egitera.

Yoga, soinu eta pandero zein abesbatza ikastaroak emongo ditue eskolan. KZgunean be eskainiko ditue ikastaroak

kirol errota

KIROLERROTA GIMNASIOA
Intxaurren kalea, 54
48200 Durango

kirolerrota@ibaizabalikastola.org
94 621 60 21 •
www.ibaizabalikastola.org

ASTELEHENETIK IGANDERA ZABALIK 07:00ETATIK 00:00AK ARTE

Jarduerak: *euskaraz*

- Cycling
- Just Pump
- Ars Corpore
- Kick-boxing
- Sabel-dantza
- Yoga

27

euro / hilean

ZERBITZUAK

- Tenis eta padel pistak
- Sauna
- Masajea
- Aparkalekua

Entrenamendu eta dieta pertsonalizatuak diseinatzeko ditugu, aditu batek egindakoak.

DURANGO

EAJk zerga eta tasak dagozenez mantendu gura ditu

Hobariak be lehengoan mantentzea proposatu deutse Gobernu Taldeak gainerako udal taldeei

Aurten hasitako bideagaz “koherentzia” gordetzeko, lehengoan mantendu gura ditu zerga eta tasak Gobernu Taldeak. Gainerako udal taldeei egindako proposamenak hobariak be dagozen legez mantentzea jasotzen dau. Egoera ekonomikoak “bere-ziki gogor jo dau eskualdea; bista-ko errealtatea da: gizarte laguntzak eskatzera datorren herritarretan ikusi leiteke”, arrazoitu dau Aitziber Irigoras alkateak.

2009an hasitako bideagaz “koherentzia” mantentzeko hartu dau erabakia EAJk

**Udalkutxa aparte itzita, Udalak ohiko sarre-
retan 2,59 milioi euro gitxiago batzea aurreikusi dabe**

Udalkutxa albo batera itzita—Aldunditik datorren laguntza—, 2,59 milioi euro gitxiago aurreikusi dabe, Udalaren ohiko diru sarre-
retan bakarrik: %18 gitxiago, “aurreikusi ezin leitekezenak, ez ordaintzeak, adibidez, albo bate-
ra itzita”, dino alkateak. Batez bes-
teko horretan, gehien plusbaliek

(-67%), eraikuntzen, instalazioen eta obren gaineko zergak (-78,95%) eta irekitze baimenek (-63%) era-
giten dabe. Ondasun Higiezin-
en Gaineko (%6) edo Ibilgailuen Gai-
neko zerga (%2) bitartez diru-
sarrera gehitzea aurreikusi dabe.

Eguzkitza

Enplegua sustatzeko, bazterketa arriskuan dagozenez laguntzeko edo gizarte laguntzak indartzeko 2009an hasitako bidea aitatu dabe. “Horretan jarraituko dogu, ahal den neurrian beste erakundeekin lanean”. Eguzkitzako industriaguna be “berpiztu” gura dabe, “ego-
ra horretatik kirtetzerako prest egon daiten, eta askotariko industria jarduera bultzatzeko”.

Dinoenez, “egongo da gitxia-
goren aldekorik, baina, itzi ezin doguzen zerbitzuak eta indartu behar direnak be—Gizarte Ekin-
tza—, hor dagoz. Gure obligazioei aurre egiteko baliabiderik ez geun-
ke zero azpitik jardunez gero”. Tal-
deekin akordioetara heltzeko aha-
legina egingo dau EAJk. ■ A.B.

Proposamena talde guztiei planteatu eta “ahal izanez gero” guztiekin akordioetara heldu gura dau EAJk

Santa Anako indusketa lanek 840 bisitari izan ditue

“Bete-beteko arrakasta” izan dabe bisita gidatuek, Turismo Bulegoak jakin eragin dauenez

Santa Ana plazako indusketa lane-
tara eratutako bisita gidatuetan 840 lagunek—durangarrak 787 izan dira eta EAEkoak 44— parte har-
tu dabe; 40 bisita gidatu egin dira. “Bete-beteko arrakasta” izan dabe-
la nabarmendu dabe. Izan be, 24 talde antolatzen zen helburua (360 lagun batuz). Horixe izan da Turis-
mo Bulegoaren iraileko eskaintza

Santa Anako indusketetara bisitak izan dira iraileko eskaintza turistiko nagusia

turistiko aipagarriena. Santa Anan aurkitutako XV. eta XVIII. eko aztar-
nekin egin leitekene erabakitze-
ko herritarrek iradokizunak be emon ahal izan ditue, teknikari eta politikoek balorazioa egin ondo-
ren erabagi bat hartzeko.

Iraileko datuak “oso positibo-
ki” baloratu ditue: 2.494 kontsul-
ta izan ditue; Santa Anakoak eta bestelako bisitak barne, 985 zerbi-
tzu turistiko kudeatu ditue eta Mas-
ter Dur&Go eta Auto Klasikoen Rallyagaz lotuta 259. Bestalde, Lariz Tor-
rera aldatzeari turismo zerbitzu-
rako “erabakiorra” deritzoe. ■ A.B.

Barriztutako Ezkurdiko kioskoa zabaldu dabe, asteon

Tabira Musika Bandaren doinuekin inauguratu dabe 1905eko kioskoa



Hainbat durangar hurreratu zen eguaztenean egindako inaugurazio ekitaldira. Iban Gorriti

Gutziz barriztuta eta Tabira musi-
ka bandaren doinuek lagunduta aurkeztu dabe Ezkurdiko kioskoa jendaurrean; baita garbiketa sako-
na izan dauen Ezkurdi parkea bera be, urmaelaren orde-
z jarritako lorategi japoniarragaz. Uda aurretik hasi ziren barrizten, eta 220.000 eurotik gorako inbertsi-
noa izango da. Espainiako Gober-
nuaren Tokiko Inbertsinoen Esta-
tu Fondoen bitartez aurre egin deutse Udalak beharroi.

Ur-kanal zein urmaela harriz estaldu ditue, Aitziber Irogoras alkateak azaldu dauenez: “Ura mugitzeko sistema apurtu zela 20 urtetik gora dira, eta ura geldirik

egon da. Hori kendu eta harriak ipini doguz”. Kioskoa be guztiz barriztu dabe. Eskailerako baran-
dak aldatzea falta den arren, estal-
kirako tratatutako zura erabili dabe

Uda aurretik hasi ziren barrizten; 220.000 eurotik gora inbertitu ditue horretan

2008ko udatik kioskora sartzeara galarazota egon da, “estalkia oso txarto, jausteko arriskuan zegoelako”

—hezetasunetik babestu dabe—, eta Ezkurdi osoko argiteria orde-
katu dabe: “Argi-kutsadura baxu-
ko farolak jarri dira, gehiago argi-
tzen dabenak”, dino alkateak.

Sinbolo berreskuratua

1905ean jarri ei eben Ezkurdiko itu-
ria, baita kioskoa be. Azken horre-
tara sartzeara, baina, 2008ko udatik galarazota egon da, “estalkia oso txarto, jausteko arriskuan zegoelako. Orain, hainbat durangarren bizipenen sinboloa berreskuratu dogu”, alkatearen berbetan. Ezkur-
diko plazaren proiektuak 1970ean Espainiako Arkitektura Sari Nazio-
nala jaso eban. ■ A.B.

AHTaren kontrako protesta, Ezkurdin

Abiadura Handiko Trenaren (AHT) kontra protesta egin guran Ezkurdiko arbola batera igon ziren gazte bi aste-
buruan. Aldi berean, azpiegitura horren kontrako esku-paparak bana-
tu zitueen kalean. Ordulaurdenera hel-
du ziren Ertzaintzaren patruila-autoak, eta arbolatik jaisteko esan arren eure-
nari eutsi eutsien. Azkenean su-hiltzai-
leak bertaratu ziren. Behin behera jai-
tsi eta gero, identifikatu egin zitueen protesta egin eben gazte biak. ■ J.D.



OSASUN GIDA

AKUPUNTURA



MINKENDU

AKUPUNTURA (orratz gabe ere)
ETA MINAREN AURKAKO
TERAPIAK • HIDROLINFA

Alberto Murua

Andra Mari, 18 • 48200 DURANGO

tf. 662 270 770

LOGOPEDIA



- Psikologia
- Psikoterapia
- Bach loreak
- Logopedia
- Fisioterapia

ume eta helduentzako


Txibitena, 9A - behea
48200 DURANGO

tf. 94 681 21 00

mug.: 669 612 362

ahozabal_zentrua@yahoo.es

PODOLOGIA



JON GERRIKAETXEBARRIA PENÁ

PODOLOGIA KONTSULTAK:
oinen gaitzak, ortopedia eta zirugia

Ermodo, 2- 1. eskuma
48200 DURANGO

tf: 94 620 11 00

ODONTOLOGIA



B. UNAMUNZAGA E. ETXEBARRIA

ODONTOLOGIA OROKORRA
ETA ESPEZIALITATEAK

Murueta Torre, 2- C behea
48200 DURANGO

tf: 94 681 99 51

FISIOTERAPIA



FISIOTERAPIA ETA ERREHABILITAZIOA

Erditze aurreko eta ostekoa, txisari
ezineustea, traumatologia, kirola, trafiko istripua,
drainatze linfatikoa(masektomia ondoren),...

Iturriza, 44 -behe ezk.
48240 BERRIZ

tf. 94 622 55 93

OPTIKA



ZENTRU OPTIKOA

Teknika aintzindariak, kontaktologia, haurren
ikusmena, ikusmen terapia, audiometria
NAHIA ZABALA eta AITZIBER ZABALA

Arkaraz, 3
48240 BERRIZ

tf: 94 622 50 99



PABLO ZUBIZARRETA

FISIOTERAPIA
&
OSTEOPATIA

Muruetatorre, 2D
48200 DURANGO

tf: 94 655 00 49 / 695 784 963

PSIKOLOGIA



JON ARRUABARRENA

PSIKOLOGO KLINIKOA
PORTAERA TERAPIAN MASTERDUNA

- Antsietatea, estresa, fobiak
- Depresioa
- Eskola arazoak

Umeak - Nagusiak - Bikoteak

Francisco Ibarra, 6 Durango
jon@psikologo.biz www.psikologo.biz

tf: 94 603 32 46 - 629 245 728

KIROMASAJEA



KIROMASAJEA DIGITOPUNTURA

Komentu kalea 15
48200 DURANGO

tf. 94 620 00 52



HIRU FISIOTERAPIA

astelehenetik - ostiralera 08:00 - 21:00
larunbatak 09:00 - 13:00

Antso Estegiz, 4
48200 DURANGO

tf. 94 466 94 00

ABADIÑO

Babeseko etxebizitzak zozkatu ditue, lehenengoz herrian

Joan zen bariku eguerdian burutu eben etxebizitzaren zozketa publikoa



Bertarik bertara jarraitu eban babeseko etxebizitzaren zozketa herritar askok. Iban Gorriti

Babeseko etxebizitza barrien zozketa ekitaldia izan zen joan zen barikuan, Zelaie-tako probalekuan. 154 etxebizitzaren esleipendunak izan diren beste horrenbeste herritarren zerrenda publiko egina da beraz, joan zen barikuaz geroztik. Zozketan parte hartzeko izena emon ebenak hirurehunetik gora izan ziren, baina erdia baino gutxiago ziren zotz egin zituen etxebizitzak.

Etxebide erakundeko ordezkariak eta alkatea izan ziren ekitaldia gidatzen

Muntsaratz auzoan eraikiko ditueen 154 babeseko etxebizitzek badaukie jabea

Eusko Jaurlaritzako Babespeko Etxebizitza Esleitzeko Etxebide zerbitzu publikoaren ordezkariak, eta Talde Independenteko Jose Luis Navarro alkatea izan ziren probalekura batutako enberradapean zozketa egiten.

Herrian lehenengoz egingo dituen babeseko etxebizitza horreetariko baten jabeek, eraikitzen hasiak diren etxeak bi urtean amaitzea itxarongo dabe. ■ I.E.

Geredixa elkartearen perretxiko bilduma

Joan zen asteburuan, Traña-Matienan Geredixa mikologia elkarteak antolatutako perretxiko erakusketa egon da ikusgai. Errota kultur etxean ipini zituen askotariko lurreko fruituak, eta Izadi natur zientzien elkarteak aztertu eta sailkatu zituen ondoren. Bisitariendako domekan zabaldu eben erakusketa. Sasoia be horretarako xea izanik, kolore, tamaina eta forma askotako perretxikoak ikusgai izan ziren XVIII. erakustaldian bilduak.



K.Aginako

ZALDIBAR

Antzinako argazki sorta da Lasuenen azken liburuxka

Balendin Lasuenek herriko historiari buruz kaleratu dauen azken liburuxka: aintzinako argazki bilduma

Orain bederatzi urte, 2000. urtean, ekin eutsan Balendin Lasuenek herriko historiaren hainbat alderdi liburuxka monografikoetan bilduteari. Uztailean kaleratu eta etxetik banatu dau zazpigarren liburuxka hau, eta, aurreratu deuskuenez, argazkiak biltzen dituen azken izango da berau.

Soinujole zaldibartarrei buruzko dokumentazioa bilduko dau hurrengoan: 10 soinujoleri buruzko historia

Ezkontzetako argazkiak eta lagun taldeenak jaso ditu; herritarrek itzitakoak dira batzuk eta Lasuenen etxean gordetakoak beste zenbait. Gabonetarako, soinujole zaldibartarrei buruzko

dokumentazioa jasotzen dauen liburuxka kaleratuko dau, herriko 10 soinujoleri buruzko informazioagaz. Bilduma osoa 30 liburuxkagaz borobiltzeko asmoa dauka Lasuenek. ■ I.E.



Ibur Erreka industriagunearen eremua egokitu beharraz

Eibar eta Elgeta artean Zaldibarko Udalaren jabetzakoa diren Ibur erreka inguruko lurak bisitatzen izan ziren, joan zen barikuan, Udaleko ordezkariak. Izan be, beharrezko ikusten dabe, batetik, Ibur Erreka industriagunea zeharkatzen dauen "erreka-bideratzea", eta, bestetik, berrogeita hamarren bat enpresa dagoen eremua egokitzea. Gaia landu eta lanak zelan finantzatu aztertzeko Eusko Jaurlaritzagaz batzarra egitea dabe helburu.

Hasi dabe epaiketa

Udala konponketa eta egokitze-lanak zelan finantzatu aztertzen dabilela, orain hiru urte hasitako ikerketaren ondoren, sexu esplotazioa egozten deuseen eta Ibur Errekan clubak zeukien hiru gizonen kontrako epaiketa hasi da, asteon, Bilbon. ■ I.E.

Erreka bideratu eta ingurua egokitzeko beharra dagoela nabarmendu dau alkateak

Industriaguneako gau-cluben jabeen kontrako epaiketa be hasi da aste honetan

Elkarte bitan eta PSE-EEren egoitzan sartu dira lapurretan

Errekabarrena eta Artia elkarte eta sozialisten tabernan sartu dira asteon lapurrak, gauez. Esku-dirurik lortu ez, eta elkarteko ateak hondatu ditue lapurrak Artia elkartearen. Sozialisten egoitzatik telebista bi eta txanpon-makinako dirua lapurtu ditue. Lapurretan jasan dabenek nabarmendu dabenez, azkenaldian lapurretan kopurua asko hasi den sentsazioa daukie. Angel Martin PSE-EEko zinegotziak, "badirudi lapurretan gune bilakatu dela herria", nabarmendu dau.

Ertzaintzari zaintzarako erronda sarriago egin daiala eskatzea dela hartu leiken neurri bakarra dino Udalak

Sozialisten egoitzatik txanpon-makinako dirua eta telebista bi eroan ditue

Elkarte, taberna eta autotan lapurretan asko gertatzen ari dela onartu dau Idoia Mendiolagarai alkateak. Udalak hartu leiken neurri bakarra, baina, Ertzaintzari, zaintzarako erronda sarriago egin daian eskatzea dela azpimarratu dau. ■ I.E.

GAER DESINFEKZIOAK

Mota guztietako intsektuak eta arratoiak hiltzen ditugu:

LABEZOMORROAK, INURRIAK, JANTZISITSAK, ARRATOIAK, ARKAKUSOAK, ERLEAK...

Iturriza, 42 - 2. ezk. - Tf./Faxa: 94 622 57 74 - 48240 BERRIZ Mug: 658 75 72 79

BILBAO ASEGURUAK

Jabier Rueda

Grupa CATALANA OCCIDENTE

"BODEGUILLA"

TRAÑA-MATIENA

Tfn. 94 681 43 85

AZKARGI GARBIKETAK

Bulego eta Industria mantenimendua

Obra osteko garbiketa

Kristalizatuak eta abar

Goietia, 10 - 2. Esk. - ELORRIO

Tfn.: 94 682 09 91

Arrike

Liburudenda

Kalebarria, z/g - 48200 DURANGO

Tel.: 94 620 18 93 - Fax: 94 681 64 03

ELORRIO

136.000 euroko kreditu aldaketa aurreikusi bako ur-hornidurarako

Zenitatik herrigunerako ur-hornidura barriztatzen dabilz azken hileotan. Herrigunetik gora doan espaloia amaitzen den tokian etxebizitzak dagoz, eta Udalak uste eban ehun metroko tramu horretan hodien azpiegitura eginda zegoela. Lurra altxatu dabenean, baina, uralitazko hodieria dagoela konturatu dira orain.

Beraz, tramu horretan be barriztatze-lanak burutu behar ditue, eta ez daukie hodieria zaharra kendu eta barria ipintzea beste erremediorik. Horretarako, joan zen astean egindako azken udalbatzarrean 136.000 euroko kreditu transferentzia onartu eban udalbatzarrak.

Datozen hileetan eguraldia lagun badabe, eta aurreikusi bako beste ezustekorik gertatzen ez bada, lanak urte hau joan aurretik amaituko ditue. ■ J.D.

Udalbatzarrak 136.000 euroko kreditu transferentzia onartu dau, eginda zegoela uste eben tramuan ur-hodieria aldatzeko

San Agustingo erretaula nagusia barriztuko dabe

Sinatutako akordioaren arabera Udalak 5.000 euro emongo deutzaz parrokiari, lanak burutzeko

Udalak hitzarmen banasina-tu dau San Agustingo parrokiagaz eta Sortzez Garbiaren Basilikagaz. Lehenengoan parrokiako erretaula eraberrituko dabe. Bigarrenean, bere eskumenean dagoen Santa Katalina ermitako teilatua da eraberrituko dabena.

Erretaula barriztatzeko lanak denporaz egin beharreko lanak dira, eta ez daukie amaitzeko epe finkorik

San Agustingo erretaula eraberritzeko 5.000 euroko laguntza emongo dau Udalak. Batez be, umedadeak eragin deuto kalterik handiena, eta ildo horretako ereberritze-lana izango da garrantuko dabena. Horreek astiro eta

denporagaz egin beharreko lanak dira, beraz, ez dabe lanak amaitzeko eperik ipini.

Santa Katalinan teilatua
Sortzez Garbiaren Basilikak hainbat ermita daukaz bere eskumenean. Horreetako bat Iguria auzoan dagoen Santa Katalinakoa da. Ermita horretako teilatua barriztuegingo dabe. Udalak 8.000 euroko laguntza bideratu dau lan horreetara.

Lanak laster hasiko ditue. Izan be, azaroaren amaiera aldera Santa Katalina eguna ospatuko dabe, eta ordurako ermita prest eduki gura dabe. ■ J.D.

Santa Katalina ermitako teilatua konponduko dabe azaro amaierarako



San Agustingo parrokiagaz sinatu dabe hitzarmenetako bat.

Taberna Ibiltariak jai giroa sortu eban Errebonbillo Egunean



K.Aginako

Elorriarrek Errebonbillo Eguna ospatu eben joan zen domekan. Ohiko prozesinoaz gainera, ekitaldi barri bi zegozen. Bata Taberna Ibiltaria, herriko kaleak kantuz herrikoiz girotu zituen. Bestea, Durangaldeko txistulariek, Elorrioko metal taldeak eta Berrio-Otxoa abesbatzak elkarregaz eskaini eben kontzertua.

Udaltzainen asteburuko ordutegia luzatzea aztertzen dabil Udala

Herriko ikastetxeek gauetan jasan ditueen erasoak ekidin gura ditue

Azken aspaldian herriko eskola publikoan zein Lourdesko Ama ikastetxean leihotako kristalak apurtuta agertu izan dira. Sortzez Garbiaren Basilikako arkupeak be jasan dau erasoren bat edo beste. Jazoerak gauzez gertatu dira, eta jakinarazo dabenez Udaletxean modu horretako zazpi bat erasoren barri jaso dabe.

Erasoak, batez be, abuztuan eta uztailean egin zitueen eta horreek konpontzeak eskatu dauen gitxi gorabeherako kostua 9.000 euro ingurukoa izan dela kalkulatu dabe. Udala egoera zelan konpondu aztertzen dabil. Udal-

Eskola publikoan zein Lourdesko Ama ikastetxean leihotako kristalak apurtuta agertu izan dira

Asteburuko ordutegia luzatuta, udaltzaingoa gauzez be ibiliko litzateke herriko kaleetan zaintza lanean

tzaingoagaz laster batzartzekotan dira, gai horri buruz berba egiteko: “Edozein erabaki hartu aurretik eurekin egon gura dogu. Halan be, segurutik udaltzainen asteburuko ordutegia luzatzea izango da hartuko dogun irtenbidea”, dino Niko Moreno alkateak.

Horrela, udaltzainen ordutegia gauera luzatuko leukie, eta herrian zehar ibiliko litzateke zaintza lanean. Oraindino ez dabe zehaztu ordutegia zenbat orduz luzatuko dabenean, eta zelan gauzatu den. Erabaki definitiboa laster hartzea itxaroten dabe udal arduradunek. ■ J.D.

GALDERA:
Dantzari dantza oinarri dauen bost urtean behingo zer egun ospatuko dabe lurretan?

Izena: _____
Tel.: _____

Makatzeta jaletxerako lagun birendako afari-txartela zotz egingo dogu.

Bialdu erantzunak: Bixente Kapanaga, 9 lurretan edo astekaria@anboto.org helbideetara, Hilaren azken alean agertuko da irabazlea.



Makatzeta
ARRAZOLA
Arrazola- Atxondo
Tel.: 94 658 29 31

OTXANDIO

Lau umegaz zabaldu dau atea haurtzaindegi barriak

Tokia badagoenez, urte osoan zehar egongo da izena emoteko aukera

Astelehenean zabaldu eben lehenengoz haurtzaindegi barria. Lau ume dagoz oraingo: urtea bete bako bi, eta 1-2 urte arteko beste bi. 21 ume-
rendako tokia daukienez, interesatuta dagoen gurasoak behar dauenean emon leike izena.

Haurtzaindegia 07:30etik 16:00etara dago zabalik. Gurasoen eskakizunak kontuan hartuta erabaki dabe ordutegi hori.

Umeak adin tarteen arabera, gela bitan banatuko ditue. Halan be, oraingo lau ume dagoenez,

denak gela bakarrean batzea erabaki dabe. Horreek zaintzeko monitore bi dagoz. Ana Aranzabal monitore eta koordinatzaileak azaldu deuskunez, “gurasoei asko gustatu jake haurtzaindegia zelan geratu den atonduta”.

Umeendako gela bakotxak logela bana dauka. Horrez gainera, haurtzaindegiak psikomotritzitate gela, sukalde-jangela, bulegoa eta komunak daukaz; gela bien artean beste sukalde txiki bat be badauka, esaterako, esnea berotzeko erabiltzen dabena. ■ J.D.

Umeak gela bitan banatuko ditue, adinaren arabera; halan be, oraingo lau dagoenez, gela bakarrean batu ditue

Gela biek logela bana daukie; horrez gainera, haurtzaindegiak psikomotritzitate gela eta sukalde-jangela be badaukaz



Astelehen honetan zabaldu eben, lehenengoz, Otxandioko haurtzaindegi barria.

ATXONDO

Prest daukie Urkuzu kultur etxe bilakatzeko lanen baldintza-orria

Datorren urtean lanak hasiko dituen enpresa hautatzeko prozesua hastear

Urkuzu eraikina kultur etxe bilakatzeko Udalak zehazten dituen oinarriak batzen dituen baldintza orria prest daukie dagoeneko. Lanak burutuko dituen enpresa negu honetan hautatzea dabe helburu, Udalean dinoenez, eta, horrela, lanak datorren urtean hasiateke hurrengo pausoa. Izan be, legegintzaldia amaitu aurretik kultur etxea prest izatea gura dabela azpimarratu dau Cobos alkateak. Eraikinaren egitura, hormak eta teilatua egoera onean dagoenez, batez be, barrukaldean egingo ei ditue obrak: eraikinaren banaketa barrituko dabe gehienbat.

Joan zen astean alkateak sinatu eban epe luzerako maileguagaz erosiko dau Udalak eraikina

Udalak zehaztutako proiektua gauzatuko dauen enpresa hautatzeko lehiaketa publikoa hasiko dabe laster

Igazko ekainean erosi eban Udalak Urkuzu eraikina, eta hasieran erosketa ha Udalaren jabetzakoa zen lursail baten salmentatik lortutako diruagaz finantzatzea zen Gobernuaren asmoa. Lursaila erosteko prest, baina, ez da inor agertu, eta beraz, eraikina nagaitiko 300.000 zorra epe luzerako maileguan ordaintzea onartu eben udalbatzarrean.

Kultur etxearen diseinuari jagokonez, Udalak daukan asmoa lehiaketa publikoan ipiniko dabe hurrengo pausoa, lanak egingo dituen enpresa hautatu eta lanak datorren urtean abiatzeko. ■ I.E.

ABADIÑO

“Mesedeak eskertzeko” batuko dira, Urrijenean, Urkiolan

Uda amaituta, udagoienez, belarra, hiria eta egurra batu ohi ziren sasoi batean, neguari begira. Gero, Jaunari “mesedeak” eskertzeko elkartu ohi ziren. Usadio hori gogoan hartuta elkartuko dira, urriaren bigarren domeka honetan, Urkiolako Santutegian, eskerrak emoteko. *Urrijena* ospatzeko meza nagusia 12:00etan hasiko da.

Bestalde, Artzain Eguna bertan behera geratu da aurtur Santutegiko arduradunek jakin eragin dabenez. Ardi, gaztai zein artzai-txakur erakustaldiak antolatu ohi dira.

DURANGO

Gizon bat atxilotuta, bikotekide ohiari ustez lapurtzeagaitik

Ertzain Etxera atxikitako agenteek 41 urteko gizon bat atxilotu dabe, asteen, ustez bikotekide ohiari eta beragaz zegoen lagunari labana handi batez mehatxu egin eta diru-zorroa zein bestelako ondasunak lapurtzeagaitik. Ertzaintzak jakinarazi dauenez, jazoera martitzen goizaldean gertatu zen, herriguneko etxebizitza batean. Gizon bat bere bikotekide ohiaren etxean sartu zen, sukaldeko labana handi bat hartu, eta logelan sartu zen. Hantxe ei zegoen emakumearen oraingo bikotekidea be.

Ustez eskuan zeukan labanagaz mehatxatu eta logelan zegoen gizonari etxea itziazaro eutsan, bestela hilko ebala oihukatuz. Ondoren, diru-zorroa eta mugikorrak hartu eta alde egin ebala azaldu dau Ertzaintzak. Diru-zorroan 500 euro zegozen. Ibilgailuan atzeman eban lapurra Ertzaintzak, lapurtutako zorroagaz eta mugikorrak.

Kobikako pintxoak finalista

Durangoko Kobika jatetxeak Euskal Herriko IX. Pintxo Txapelketako finalean parte hartzeko txartela lortu dau. Denera, Bizkaiko 37 ostalaritza establezimenduk emon dabe izena Hondarrabiko Ostalari Elkartek (Gipuzkoa) eratutako txapelketan, eta hamarrek lortu dabe finalera heltzea. Gipuzkoako zortzi (27k emon dabe izena), Nafarroako bost (16k emon dabe izena) eta Araba eta Iparraldeko hiruna pintxo (hurrenez hurren, zazpik eta zortzik emon dabe izena) lehiatuko dira finalean.

Urriaren amaiera arte izena emoteko aukera Ludotekan



Pablo Pedro Astarloa kalean egokitutako Ludotekan izena emoteko epea urriaren 30a arte luzatu dabe. Astelehenetik barikura arte jo leiteke bertara, 16:30etik 20:00ak arte. Hiru urte-tik 14 urtera bitarteko gazteei zuzendutako zerbitzua da—adin-kako taldeetan— eta izena emoteko ordenaren arabera banatuko da lekua (94 4 669 154 / ludoteka@durango-udala.net). Bestalde, Bartolome Ertzila musika eskolak eratutako udagoi-neko ikastaroetan izena emon leiteke urriaren 15a arte. Opera munduan sartu gura dabeneztat berbal-di-emanaldiak eta batuka tailerra eratu ditue (94 603 00 35).

BERBAZ >

“Informazinoa emon eta familien arteko esperientziak partekatu gura doguz”

AUPI elkarteko hamar euskal familia batu ziren joan zen domekan urteroko batzarra egiteko, Durangaldean



Kepa Aginako

Unai Viscarret •

- 34 urte daukaz eta Iurretan bizi da
- AUPI, haur-protesi erabiltzaileen elkarteko kidea da

Viscarret-Fernandez familia AUPIko (haur-protesi erabiltzaileen elkarte) kidea da. Haurdunaldian konturatu ziren Maialenek besoan agenesia zeukala. Berehala, informazinoa bildu eta gaia aztertzeari ekin eutsien. Bartzelonako ospitale batean punterengo medikuekin bat egin dabe. Halako kasu gitxi egon arren, elkar-tearen barri emotea garrantzitsua dela deritzoe, baten bat euren lekuan balego, nora joan leiken jakin daian.

Zelan ezagutu zenduen AUPI elkarte?

Haurdunaldian ekografia egiterakoan konturatu ginen Maialenek agenesia zeukala besoan. Gurutzetako ospitalean ekografiak egiten zebilen neskak esan euskun egun bi lehenago beste emakume bat arazo bera zeukan ume bategaz pasatu zela handik, eta gai horren inguruan eskuorri batzuk itzi zituela. Elkarteko kide horregaz hartu-emonetan jarri ginen. Asteburu horretan bertan gelditu ginen informazinoa jasotzeko.

Elkarteak zelan lagundueutsuen?

Informazino asko emon euskuen. Agenesia zergaitik gertatzen den jakiteko hainbat teoria dagozela azaldu euskuen. Halan be, medikuak be ez dira ados jartzen.

Halantxe ezagutu dozue Maialen joaten den ospitalea.

Bartzelonan dagoen ospitale baten barri izan genduen: Sant Joan de Déu. Estatu mailan umeein hainbat espezializatetan lan egiten dauen ospitale onenetakoa da. Ortopedia eta agenesiako gaietan oso aurreratuta dabilz. Marisa Cabrera doktorea erreferentzia da arlo horretan. Unitate integrala daukie. Traumatologoen ekipoagaz koordinatuta ortopedak lan egiten dau. Ez dira medikoak, protesiak egiten ditueen teknikoak baino.

Instituzinoen laguntza jaso dozue?

Bartzelonara lehenengo bisita gure kontura egin genduen. Espezialitate hori hemen ez dagoenez, gure espedientea eroan genduen hara, eta gure

ospitalea da orain. Hiru hilabete zeukazela joan ginen Maialenegaz hara, lehenengo protesia jartzera.

Txikitatik ikastea garrantzitsua da?

Bai. Hiru hilabetegez lehenengo jarri eutsien katamar egiten ikasi zeian. Bi eskuen kontzeptua txikitatik barneratzea oso garrantzitsua izaten da. Bikiek hiru urte ditue, eta gauza asko Eneko nebak baino lehenago ikasi ditu.

Mediku batzuek geroago jartzea gomendatzen dabe.

Mediku batzuek dinoe sei urtera arte ez dagoela umeari zertan protesia jarri. Nagusitan protesi horretara ohitzea, baina, askoz gatzagoa da. Hainbat lagun ez dira moldatzen, esku bategaz konpontzen ikasi dabelako.

Hurrengo protesi mioelektrikoa-gaz aldaketa handia emon eban.

Protesi horregaz pintza mugimendua egin leiteke. Ipini eta kendu egin leiteke. Ez da ebakuntzarik behar. Hori bai, funtzionamendua ikasi beharra dago. Bere mugak daukazen

“Euskal Herrian agenesia daukien haurren hamabost kasu ezagutzen doguz elkartean”

“Nagusitan protesi horretara ohitzea askoz gatzagoa da umetatik erabiliz gero baino”

“Elkartean indar txikiak batu gura doguz instituzinoekin zubi lana egiteko”

arren, boligrafo bat hartu leike, bizikletan ibili...

Zenbat kasu ezagutzen dozue?

Hemen Euskal Herrian hamabost familia gara AUPI elkarteko kide.

Zer helburu daukaz elkarteak?

Hasieran gogorra izaten da, eta orientazinoak asko laguntzen dau. Familien artean esperientziak partekatzen doguz. Gai psikologikoak be lantzen doguz.

Indar txikiak batu gura dozuez.

Instituzinoen aurrean eskaeraren bat egin gura badogu, elkarte moduan errazagoa da, adibidez. Zubi lana egitea banaka joatea baino errazagoa da beti.

Laguntzen dekretuagaz ez zagoz ados.

Protesi mioelektrikorako laguntza jaiotzetik arazo bat daukienei bakarrik emoten deutesie. Istripu batean gertatuz gero, bi besoak galdu ezik ez deutesie laguntzarik emoten. Neurri horregaz ez gagoz ados. Oso injustua dela deritzogu. ■ Jone Guenetxea

EKONOMIA[>]

>DURANGO



Durangoko 23 establezimenduk egin dabe bat merkatare elkartearen ekimenagaz. J. Derteano

Irakurketa guneak bultzatu gura ditu +Dendak elkarteak

Urian 'Slow City' kontzeptua bertakotzeko aurrerapena izan gura dau

Komertzioa, aisialdia eta kultura hartu-emonean jarri guran, uriko establezimenduetan irakurketa guneak bultzatu gura ditu +Dendak elkarteak. 'Slow City' (uri lasaia) kontzeptua bertakotzeko aurrerapen bat izan gura dau ekimenak, eta establezimenduetan egindako egonaldia laguntzeko, bai bezeroaren bai horregaz doanaren eskura irakurketa eskaintza jarri gura dabe. Oraingoan, Durangoko 23 establezimenduk egin dabe bat ekimen horregaz.

Establezimendu guztietan 25 liburu egongo dira eskura; bordinak leku guztietan. Horretara, establezimendu horreetako baten liburu bat irakurtzen hasten denak orri-markagailua izango dau eskura, zer liburu irakurtzen dihar-

Komertzioa, aisialdia eta kultura hartu-emonean jarritz, erosketa "une atsegin eta lasai" bihurtu gura dabe

Establezimendu guztietan 25 liburu egongo dira eskura; jakin eragin dabenez, bordinak leku guztietan

duen eta zer orrialdetan itzi dauen zehazteko eta liburuok dituen beste edozein establezimendutan jarraitu ahal izateko. Erosketak luzatu leitekezen komertzioei eta egonaldia irakurketekin "arindu" leiteken ostalaritza establezimenduei dago zuzenduta. Halan azaldu dabe +Dendakeko ordezkariak, eta identifikatzeko txartela edukiko dabe erakusgai.

1. 200 euro
+Dendak merkatare elkarteak egin deutso aurre 1.200 euroko gastuari. Komertzioa, aisialdia eta kultura uztartuz kontsumitzaileari "eskaintza aberatsa" eskaini gura deusie: erosketa "une atsegin eta lasaia" egitea 'Slow City'-k aditze-ra emon gura dauen legez, argitu dabenez. ■ A.B.

- Anboto taberna
- Atxo Fun Fun
- Katazka taberna
- Leku Berri taberna
- Maite taberna
- Pol-Pol taberna
- Rugby taberna
- Gaztelu jatetxea
- Zahartzu-Karreto taberna
- Alzaa ostalua
- Misarbe kafetegia
- Murgoitio oinetakoak
- Maybel oinetakoak
- Goien oinetakoak
- Tabira oinetakoak
- Lurbi garagardotegia
- Cien Pies
- Instituto Óptico
- Ilargi argi-denda
- Kukoa
- Plateruena kafe antzokia
- Taket
- Pizeli
- barne-dekorazioa

kolaborazioa



Mauricio García
UGT sindikatua

Lan merkatua

Enpresarien, multinazionalen eta Espainiako Bankuaren gosea, kapitalismoaren gosea, aseezina da. Eurek sortu duten krisi hau langileok ordaindu dezagun gura dute. Ez dira nekatzen egunero lelo bera errepikatzeaz: lan merkatuaren erreforma, kontratu mota bakarra, kaleratze merkeagoa, sindikatuak eta administrazioak ez dezatela espedienteetan esku hartu... Eskatu eta eskatu ari dira.

Gehiago daukanak ordaindu dezala gehiago. Aberastasuna banatu dadila. UGTren egoztatik langile bat baino gehiago atera da negarrez langabezia amaitu zaiolako eta 421,79 euroko subsidioa besterik ez zuelako. Zer gertatuko litzateke enpresariei diru horrekin bizi beharko balute?

Langileok gaur egun egoera prekarioan bizi bagara, egin kontu zelan geundeekeen enpresariak gobernuei eskatzen ari diren gauzatuz gero: okerrago geundeeke; babes judizialik gabe, botere osoa enpresariena litzatekelarik.

Gauregun 3,5 milioi langabettu badaude, zenbat ote lirateke neurri horiek hartuz gero? Lanpostuak sortuko litzuketela diote, gainera! Hau lotsagabekeria! Zelan sinestuko diegu, kaleratzen, zigortzen, presioa egiten eta prekarizatzen besterik ez dakite-eta? Ez ote lukete hobe enplegu-planak egitea, kaleratu dituztenak birkolokatzeari, langileek plan horietan parte hartzea eta langileak enpresan gehiago inplikatzeari? Enpresa langilearen bigarren etxea bada—edo lehenengo, etxean baino ordu gehiago ematen baitu bertan—langile horrek nahi izango ez duena ontzia hondoratzea da, eta, beraz, bide bera da guztiek egin beharrekoa; langilea jubilatuta arte behintzat, enpresak hortik aurrera ere jarraitzea baita segurua.

Elkarriketa iraunkorra existituegin behar da, eta jarraitu izan. Enpresariak, sindikatuak eta gobernuek eseri egin behar dute, adostu; eta elkarriketa sozialak arina eta erraza izan behar du, benetako, zintzoa, inposizio bakoia, guztien parte-hartzea ziurtatuko duena. Hortik abiatuta hartu behar dira neurriak ontziak bidea ondo egin dezan, eta inor geratu ez dadin babesik barik eta noraezean.

*Erredakzioan itzulia

>IURRETA

Galdatzeari itzi deutso Fundigel enpresak

Galdaketari itzi deutso, dagoeneko, Fundigel enpresak. Iñaki Totrikaguna alkateak argitu daue-nez, "lantoki barria martxan jarri arte moldeatze beharrek jarraituko dau, baina, azken batean, isurketarik gehien eragiten dauen galdatzeari joan zen barikuan itzi eutsan".

Urrian, hondakinen garbiketa egingo dau enpresak, alkateak esan dauenez, eta ondoren eraitziko dabe eraikina. Egitasmoa lantzen dihardu orube horretan etxebizitzak eraikiko dituen promotarak. "Dena ondo bada, izan leiteke 2010erako botata egotea". Orain 2-3 urte hasi zen jardueraren aldaketa gauzatu egingo dela eta "pozik" dago alkatea: "Enpresa jardueraren mantenduko da, eta barri garrantzitsua da herriaren hirigintza eta ingurumen kalitateko be". ■ A.B.

ZARATE ELEXPE
ERAGILEAK

Bixente Kapanaga 19, behea
48215 IURRETA (Bizkaia)
Tel.: 946 816 673
Faxa: 946 817 636
construcciones@zarateyexpe.biz

MONDRAGON LINGUA

DURANGO, GERNIKA, ZORNOTZA ETA BILBON, ESKOLAZ KANPOKO INGELES ESKOLAK EMATEKO IRAKASLEAK BEHAR DIRA.

Interesik baduzu bidali zure curriculum ondorengo helbide elektronikora:

aetxenausia@mondragonlingua.com

KULTURA>



Argazkia: Ana Dominguez

ANTZERKIA> ESTREINALDIA

Babiloniako Loreak Euskal Herriko amamentzat

Udaberrian aurreratu zigun Antzerkiola Imaginarioa taldeko kide den Ander Lipus antzezleak lan berria prestatzen zebilela. Zornotza Aretan dute Babiloniako Loreak lanaren estreinaldia, gaur, 22:00etan.

Zuberoako Luhuso herrian egin duten egonaldi artistikoan eman dizkiote lanari azken ukituak, udan, baina bost urte eman dituzte Jon Gerediagak idatziriko testua oinarri duen zahartzarolari buruzko antzezlanarekin prestatzen.

Amamarena egiten du lan honetan Lipusek, tristetiaz hil zen amamarena. Aktore markinarren berbatan, "tabuz betetako herri batean, amama batek bizi duen egoera eta bere heriotza kontatzen

dugu: tradizioari eta abangoardiari buruz dihardugu".

Antzezlanaren sortzeko, gogoan izan ei du amamak hil eta gero bere logelan utzitakoa: "Jesukristoren gurutze bat, Sabino Aranaren argazki bat eta bere arropa, ez besterik... eta guk, aldiz, gure mp3a, kotxea etabar utziko ditugu". Ikuspuntu horixe garatu gura zuela azaldu zigun Lipusek: pertsona batek dagoeneko berea ez den mundu batean utzi duen logela hutsa, metafora legez. Tragikoa, baina absurdotik.

Musika Xabi Erkiziak sortu du, eta Espe Lopez, Miren Gaztañaga, Alex Gerediaga eta Mirian K. Martxante izango dira Lipusekin oholza konpartitzen. ■ I.E.

Istoria tragikoa, baina egoera absurdoz inguratutakoa da 'Babiloniako Loreak'

12 'Bularretik mintzora' ekimena

Iurretako Herri Bibliotekan martxan ipini duten 'Bularretik mintzora' egitasmoa aurkeztu dute martitzenean, guraso eta hezitzaileei zuzenduta.



13

Mikel Urdangarinen 'Zubiak'

Bilboko Arriagako prentsaurrekoan aurkeztu du 'Zubiak' disko berria Mikel Urdangarin musikariak. Bertan egingo du aurkezpen kontzertua ere.

LITERATURA > PROGRAMAZIOA

Kataluniako eta Kolonbiako pareko ekimen aitzindarien lana aintzat hartuta, orain urte bi abiatu zuen Bularretik Mintzora kanpaina Tolosako Galtzagorri elkarteak. Aurten EAEko zortzi herrietako liburutegiek egin dute bat ekimenagaz, tartean Iurretakoak.

Jaiotzen direnetik “haurren irakurzaletasuna modu integratuean sustatzea helburu” du ekimenak, Iurretako Herri Bibliotekako Ziortza Onaindia arduradunak azaldu duenez.

Tolosako Galtzagorri elkartearen ordezkari izan zen Itziar Zubizarreta, berbatan, “jaiotzen denetik jaten ematen diegun moduan, haurrei irakurtzen ematea dabil tzentzatu gura duguna”. Horretarako, doako ikastarootan izena ematen duten gurasoei eta hezitzaileei baliabide materialak (CD-liburu bat kaleratu dute, besteak beste) eskaintzeaz gainera gomendioak ere emango dizkiete.

Etorkizuna haur eskolak eta Maiztegi eskolak ere hartu dute parte

Gurasoei zuzenduriko ikastaroa Yolanda Arrieta idazleak dinamizatuko du hilean behingo saioetan, eta etxean irakurzaletasuna zelan sustatu proposatuko die aita-amei, bost saiotan. Hezitzaileentzako ikastaroa, berriz, Itziar Zubizarretak zuzenduko du hilean behingo hitzorduan. Parte hartzeko, telefonoz (946812726) edo biblioteka@iurreta.net helbidean eman daiteke izena.

Bularretik Mintzora: eskola, etxea eta liburutegia lotuz

Iazko saiakerak izandako arrakastaren ondoren, hil honetan ipiniko dute ‘Bularretik Mintzora’ ekimena Iurretako Herri Bibliotekan berriro martxan



Galtzagorri elkarteak Itziar Zubizarreta, Ziortza Onaindia eta Iñaki Totorika alkatea. I.E.

Kanpaina osoan zehar “aliatu bezala” izango dituztelako eskertuta agertu dira kanpainaren bultzatzaileak Iurretako Etorkizuna haur eskola eta Maiztegi eskolagaz. Izan ere, eskola, liburutegia eta etxea lotuko dituen sare indartsu bat sortzeko hiru esparru

Irakurzaletasuna modu integratuean garatzea da helburu nagusia

horien konpromezua eta koordinazioa diragakoak, haurren eguneroko inguru naturaletan irakurzaletasuna garatzeko.

Iaz Durangaldeko eta Iurretako 65 lagunek eman zuten ikastaroetan izena, eta oso balorazio positiboa egin zuten. ■ I.E.

ANTZERKIA > ESTREINALDIA

Aitarekin bidaian antzezlanaren estreinaldia San Agustinen

Durangoko San Agustinen estreinatuko dute Hika Teatroaren zahartzaroari eta inkomunikazioari buruzko lana, urriaren 15ean 20:30ean



Estreinaldirako gonbita luzatu zuten San Agustinen atzo.

Jabier Muguruza musikaria eta Joseba Apaolaza eta Jose Ramon Soroiz aktoreak elkartzea lortu dute, *Aitarekin bidaian* istorio gordin baina emotiboa idatzi duten Agurtzane Intxaurraga eta Arantxa Iturbe egileek. Intxaurragak azaldu duenez, elkarrekin orain urte batzuk amatasunari buruzko antzezlan idatzi zuten, esperientzia horixe bizi zutelako, eta biok bizi duten beste momentu batek elkartu ei ditu orain: zahartzaroari buruz idatzi dute elkarrekin. Elkarlan horren emaitza den lana estreinakoz Durangoko San Agustinen emango du urriaren 15ean Hika Teatroak.

Arantxa Iturbe eta Agurtzane Intxaurraga egile

Atzo egin zuten, San Agustinen bertan, zahartzaroa eta belau-naldien arteko inkomunikazioa lantzen dituen antzezlanaren aurkezpena. Intxaurragak eta Iturbek idatzitako laneko protagonistetako bi izan ziren Durangon, aitararena egiten duen Jose Ramon Soroiz eta semearen paperean ari tuko den Joseba Apaolaza. “Bidaia hau abiatzen duten arte, elkarren ezezagun diren aita-semeek elkar zelan ezagutzen duten biziko du ikusleak”, azaldu du Joseba Apaolaza aktore urretxuarra.

“Espektakulu gogorra da, baina oso momentu ederrak dituen”

Antzezlanean zehar bere “eskusoinuarekin hitzegiten” ikusi ahalko dugun Jabier Muguruzaren lana goraiatu du agerraldian Intxaurraga zuzendariak. Eduki emozional oso indartsua duen lana da *Aitarekin bidaian*, zuzendari eta idazleak nabarmendu duenez; “espektakulu gogorra, baina momentu oso ederrak dituen”, dio Hika Teatroaren azkenari buruz. Zahartzaroari buruzko emakume biren gogoeta. ■ I.E.

GEURE DURANGALDEA



Jon Irazabal
Gerediagako kidea

Udazken oparoa

Udazken honetan, folklore arloan, esan ahal dugu garai oparoa dugula eta izango dugula. Herri eta auzo gehienetako jaiak joan dira. Iurretakoak ere bukatu dira. Dantza arloan elizate honetako jaiak oso interesgarriak dira, gure ohiturak irtetzen eta dastatzen dituztenentzat. Gutxitan da posible hainbeste dantza ezberdin dastatzea astebeteko epean; *Dantzari dantza*, gizon eta andren *Soka-dantza*, *Estanpa*, *Domingilloa*, *Arku-dantza*... Folklore altxor preziatua mantendu dute iurretarek.

Elorrioren berretsi dute Errebonbilloen alardea. Aurten, gainera, Udalaren eta Gerediagaren elkarlanaren ondorioz, ohitura honi buruzko lehen liburua kaleratu da. Iñaki Irigoienek azterketak honekin, alarde honi buruzko berriak betirako idatziz gelditzea lortu du.

Irailaren hasieran Ezpatadantzari Eguna ospatu genuen Izurtzan. Urteetan ikusi ez duguna ikustea posible izan genuen: herri horretako Udaletxe aurreko plazan Durangaldeko hainbat herri-tatik etorritako 19 talde. Benetan pozgarria izan zen.

San Fausto egunean berriz ikusiko ditugu Durangon *Platillu Soinua* dantzatzen, eta aurreko igandean ehunka umek uri horretako kale eta plazak beteko dituzte euren dantzekin. Antzera ibiliko dira Iurretan eta Garain datozen asteburuetan euren *Urrijenak* ospatzerakoan. Nola ez gogoratu urriaren azken larunbateko zita: Durangon bilduko dira eskualdeko taldeak, oraingoan neskak eta mutilak, Durangaldeko dantzak egiteko asmoarekin.

Baina beste alde batetik ez dira hain garai oparoak. Puntualki dantzatzen dute gure taldeek, baina ez behar den neurrian. Entseguetan saiatu ondoren gero ez dago plazarik. Eta dantzariak plaza behar du, plaza amesten du. Plazarik gabe ez da lortzen gazteak erakartzea. Ikusgarriagoa eta errazagoa da Euskal Herri guztiko dantzak jaso, muntai bat prestatu eta plazarik plaza ibiltzea. Hone-l, talde autoktonoek ez dute “merkaturik”; desagertzeko arriskuan daude. Azken banderatolestu orduko ez legoke txarto norbaitek zerbait egitea...

MUSIKA> ELKARRIZKETA

Bakarkako zortzigarren diskoa. Atzera begirada bat egitea eskatuko deusugu. Lehenengo kanten zer oroitzapen?

Lehenengo diskoa orain hama-bi urte kaleratu neban: *Haitzetan*. Nire bizitzako beste garai bat zen, 23 urte neukazen, eta gitarrajotzen ikasi barri neban; gitarrajotzen ikasiaz batera sortzen ziren lehenengo kantak. Nahiko sasoi eferbeszentea zen, eromen puntu handia zeukana. Bakarrik sortzen nituen kantak, eta letra gehienak be neuk idazten nituen. Dena soilagoa zen. Zuzenean, Eñaut Elorrieta eta Igor Arzuagagaz ibili nintzen abesti horreek jotzen.

Eta 'Zubiak'-ekoak?

Azkeneko grabaketa hau hama-bi urte geroagokoa da, eta talde batek grabatutako diskoa da. Konposatzeko prozesua bai lehenago bai orain oso antzekoa da; normalean beti doinua ateratzen da lehenago, ez bada letra bat aurrez jaso dodala. Musika egiten dot, melodia eta kanta osatu, eta gero ipintzen deusat letra. Batzuetan, letra jartzerakoan be, kantaren egitura aldatzen joaten zara. Musika gidatzen deust nondik nora idatzi behar dodan.

“Sentsazioak deskribatzen ditueen irudi asko dago disko honetan”

Letra eta musika uztartze hori errazagoa da biak zeuk sortutakoak direnean?

Normalean, letra bat jaso dodanean ez dot ohikotik aparteko zailtasunik izan. Baina diferentia da, bai: letra bat jasotzen dozunean distantzia batetik heltzen deusazu, eta norberak idazten dauenean, ideia eduki arren, batzuetan, gatzizaten da ideiarik hiltzea. Edozein modutara, uste dot ideia lortzea dela gauzarik gatzena. Hori topatuz gero errazago dator dena.


Zer ideia dagoz disko honen oinarrian?

Azken urtean idatzi ditudan letrak dira, azken zortzi hilabeteetan idatzitakoak. *Anek idatzi dit zutaz* aurreko diskoagaz konparatuta, *Zubia* ez da hain narratiboa. Uste dot mundu apur bat intimoagoan sartu nazela: ‘zu eta ni’ arteko horretan. Sentsazioak deskribatzen ditueen irudi asko dago, eta keinuean oinarritzen da. Plano intimo batean eta ez hain zehatzetan dago idatzita disko hau. Maitasun mina be presente dago hainbat abestitan.

Min hori da sarri musikaria sortzera bideratzen dauena? Hartu-emon askotarikoez dihardut, denetariko hartu-emonenez, ez bakarrik bikoteaz.

“Elkarrengandik banatzen gaituen zubiaren irudi horrek inspiratu nau”

Bilboko Arriagan aurkeztu dau Mikel Urdangarin musikari zornotzarrak ‘Zubia’ disko berria. “Elkar ikusi eta sentitu eta zubiaren alde banatan egon barik, zubi hori gurutzatzearen aldekoa da disko honen arima”, azaldu deusku



idatzitako kanta da. Giza hartu-emonetan mina ez da maitasunean bakarrik sortzen. Halan be, badago intentzino bat diskoan zehar, minean hondoratu barik, egoera mingarriei aurre egitekoa: min hutsean geratu barik, itxaropena marraztekoa.

Zer kanta esango zeunke izan leitekela diskoaren sintesi?

Nahiko eskari gatz da hori... Adibidez, hor dago *Zubia* kanta; disko osoan zehar inspiratu nauen irudia jasotzen da kanta horretan: zubi bat dago, eta albo bakoitzean elkar ikusi eta ezagutzen dabene pertsona bana. Elkar sentitu leikie, baina bakoitza zubiaren alde batean dago. Antza, ez dira zubi hori gurutzatzeko gai. Elkar ikusi eta elkar sentitu arren, elkar ezagutu eta ukitzeko pausu hori ez dabe emoten. Geure bizitzetan sarriegi gertatzen den gauza bat da hori: gurutzatu bako hainbeste zubi dago gure bizitzetan. Disko honen arima zubi gurutzatzearen aldekoa da.

“23 urte gatz hasi nintzen gitarra jotzen ikasten eta kantak sortzen”

Ez neuke esango dena oso plano pertsonaletik idatzita dagoenik, baina egia da urte batzuk badaukaguzela, eta bizipenak be metatzen goazela. Baina norberak ez dau berari buruz bakarrik idazten, ingurutik be jasotzen dau. Gertuan gertatutako istorioetatik edan egiten dozu, eta batzuetan zure abestietara ekarri. Unai Iturriaga, Karmele Jaio eta Kirmen Uriberen kolaborazioak be hortik doaz. Bakotxa bere moduan, denak sartu dira mundu horretan.

Kolaboratzaileekin izan dozun elkarlana zelakoa izan da?

Lehenengo eta behin, nire kantak nondik nora doazen azaldu neutsen; batez be, disko nondik joan zeiteken jakin zeien. Unairi, adibidez, esan neutsan, bikote hartu-emonaren eta norberak bere herriagaz izan leikenaren inguruko paralelismoa egingo eban kanta sortu gura nebala. Lehen aipatutako ‘zu eta ni’ hori izan leiteke bikote bat, baina baita ‘herria eta ni’.

“Zaindu egin gura dot lortu dodan musikari talde sendoa”

“Bikote hartu-emonenez bakarrik ez, askotariko hartu-emonenez dihardut”

Kirmenek eta biok, bestalde, elkarregaz jardungenduen *Itzartu* ez banitz kanta osatzen.

Zelan joan zara kolaboratzailerare hori sortzen?

Gura bariketa nahita. Joan-etorrian zabilz, jentea ezagutzen dozu, lagunak egiten dozuz; bizitzan gertatzen den legez, musikan be bai. Oso inportantea da hori: uste dot taula gainean emoten den hartu-emonak oso berezia izan behar da uela. Taula gainean laguntzen zaituen jentea be sinestuta egon behar da. Hori badaukadala uste dot: musikari onak eta konplizeak. Oso gatz da hori lortzea. Zaindu gura dot, luzaro jarraitzeko. Rafa eta Bingen *Zaharregia*, *txikiegia* agian proiektuan batu jakuzen, eta ordutik dabilz neugaz. Musikari talde egonkorra, sendoa lortu dogu.

Gai barriak jorratzen dozuz. Bai, diskoko lehenengo kanta, esaterako, gerraostean fusilatutako lagun bati, anonimo bati

‘Zubia’ da kanta, diskoa eta azaleko irudia be bai...

Diskoaren azala Mikel Alberdi lagunak eginikoa da, eta aitatu-tako ideia horretarantz egiten dau. Bukatu bako zubi bat da diskoaren azaleko irudia, osatzeko dagoen zubi. Zubi hori kantatu bat izatea da gura neukena, ‘zu eta ni’ arteko lokarria: nik hasi eta zeuk bukatuko dozuna.

Lagunekin elkarlanean beste proiekturen bat badaukazu?

Gabonetan amaituko dogu Kirmen Uribe, Nika Bitchiasvili eta hirurok *Internet Cafe* ikuskizuna, eta datorren udazkenerako Traspasos dantza taldeagaz ikuskizuna prestatzen nabil. Kantak eta dantza uztartuz.

Diskoaren aurkezpen kontzertuak lotutak daukazuz?

Azaroaren 30ean Bilboko Arriagan aurkeztuko dogu. Platerue-nean, abenduaren 6an egongo gara. Azaroaren hasieran, bestalde, Platerueneko ‘Kantuaren Kantoian’ izango naz. ■ I.E.

JARDUNALDIA > ONDAREA

Bide zaharretan barrena Ondarearen Jardunaldietan

Eskualdeko hainbat udalek eta Gerediaga eta Urkiola Landa Garapena elkarteek antolatu dituzte Ondarearen Europako Jardunaldiko ekimenak

Ondarearen Europako Jardunaldiak bat eginez, Urkiola landa garapenerako elkarrekin eta Gerediaga elkarrekin antolatzen dituzte ondarearen gaineko Durangaldeko ekitaldiak. Horrebestez, Jon Irazabala eta Juan Mari Totorika izan dira ekimenaren berri eman dutenak.

Aipatutakoekin batera, programazioa osatzen jardun duten Mañaria, Abadiño, Elorrio, Otxandio, Durango, Iurreta eta Garaiko Udaletako ordezkariak ere izan ziren aurkezpenetan.

Bizkaiaren "historiaren arteak diren bideak" hautatu dituzte aurtengo jardunaldien oinarri izateko: salerosketarako, elkartrukerako eta bideen aldamenetako herrien loturarako eta garapenerako moduak izan diren bideak.

Asteburu honetan
izango da bigarren
ibilbidea: Merinoarena

Europako ondare natural
eta kulturala gordetzea
helburu nagusi duen
ekimena Durangaldean

Joan den asteburuko zapatu eta domekan, Iurretatik abiatu ziren Urkiolako Bidearen lau etapak. Bizkaiko ekialdea eta Arabako hiriburua lotzen zituen bidean zeharreko ibilaldia izan zen.

Merinoaren Ibilbidea

Lurraldean garatzen joan diren landa eta uri ezarkuntza mota ezberdinak erakusteko antolatu dute, bestalde, Garain hasi eta Elorrioko San Agustinen amaituko den Merinoaren Ibilbidea.

Geldialdiak Gerediaga, Astola eta Muntzaratze auzoetan egingo dituzte. Bihar eta etzi, goizez zein arratsalde, Abadiñotik abiatuko dira txangoak. Erreserbak egiteko edo informazioa eskatzeko 688632284 telefono zenbakia deitu behar da. ■ I.E.

ANTZERKIA > EMANALDIA

Lau negozio gizonen pena eta loria, astea irribarretsu hasteko

Astelehenean, urriaren 12an, 20:00etan da San Agustinen 'Brokers' antzezlanaren emanaldia

Finantzen, burtsaren munduari buruz, baina 1991n Madrilén sortutako Yllana taldearen estiloan –hau da, modu lotsagabe batean– jarduten du Brokers antzezlanak. Astelehen baterako, urriaren 12rako, astea indartsu eta irribarre batez hasteko proposamena da 20:00etatik aurrera San Agustinen duguna.

Lau enpresa-gizon dira Brokers lanean protagonista: luxuagaz, ospeagaz eta botereagaz lau lagunok duten hartu-emanak antzezlanaren ardatza.

Brokers lanean lau negozio-gizonen paperean arituko diren aktoreak bestalde, Fidel Fernandez, Antonio Pagudo, Toni de la Fuente eta Luis Cao dira.

Gizarte kontsumistan erroertaraino sartuta bizi diren lau negozio-gizon itxuraz arrakastatsuak gizartearen antolamendua bera ere zalantzan uzten duen egoeretan ipintzen dituzte antzezlanean. Umore absurdoa, soinu banda oso landua eta eszenaritze akatsik bakoa dira Brokersen gainerako osagaiak. Madrilko Alfil antzokiaren kudeaketaren ardura ere baduen Yllana taldearen ekoizpena da. ■ I.E.

Madrilko Alfil antzokia
kudeatzen duen Yllana
taldearen ekoizpena

MUSIKA > EMANALDIA

Perkusiorako musika tresna berrien sortzaile

Lurrezko loreontzi bat parean izan arren, ez dabilta, ez, haziak landatzen. Durangoko Musika Hamabostaldiaren programazioaren parte izan da Valentziako hiruko honen emanaldia. Joan zen domekan izan zen irudiko Amores perkusio taldea Durangoko San Agustin kulturgunean.

Bigarren hamarkada ospatzeko, Durangoko Bartolome Ertzilla musika eskolak eta Udalak antolatu duten Musika Hamabostaldiaren programazioan jasotako bigarren hitzordua izan zen domekakoa, familiengan pentsatuta ekarritakoa.

Irailean Euskadiko Orkestra Sinfonikoak abiatu zuen Durangoko Musika Hamabostaldiaren XX. edizioko hurrengo hiru emanaldiak; urriaren 31ko Ellipso Sax Quartet haizezko laukote gaztea, Sasibil taldearen *La leyenda del beso* zarzuela eta Leioa Kantika kolaralaren eta Gazte Orkestraren emanaldia.



Kepa Agnako

PLATERUENA Durangoko Kafe Antzokia

SAN FAUSTO JAIETAN

MENU

BEREZIAK

URRIAK 10, 11, 12
13 ETA 17

ON EGIN!

Landako etorbidea, 4 48200 Durango

www.plateruena.net

BROKERS
YLLANA (Madrid)
Urriak 12 • 22:00etan

AITAREKIN BIDAIA
Hika Teatroa (Donostia)
Urriak 15 • 20:30ean

San Agustin
KULTUR
GUNEA
DURANGOKO UDALA

HITZ

Liburu

Tf. 94 601 07 76 Artekale, 14 Durango

Saifastoko Jaiak 2009



anboto



URRIAREN 10etik 18ra

DURANGO

Ondo pasa Jaietan !

duran...go!
goazen!



DURANGO
Udala • Ayuntamiento

EGITARAUA

URRIAK 10, ZAPATUA

- 11:30: Erraldoi eta buruhandiekin kalejira, Ezkurditik Alde Zaharrera.
- 12:00: Broken Brothers Brass Band, Alde Zaharrean. Baita 19:00etan be.
- 12:30: Koadrilen kontzentrazioa, Andra Marian, eta Patxikotxuren igoera kalejiran Udaletxeko plazara.
- 13:00: Txupinazoa eta pregoia, Tabirako saskibalo taldearen eskutik.
- 15:30: Motorren ibilbidea Durangaldean zehar, Motorretan hasita (7. pabiloian).
- 16:00/20:00: Haur Parkea, Ezkurdin.
- 18:00: Motor akrobatikoa eta trial bizikleta erakustaldia, Ros Anaien eskutik, San Fausto auzoan. Baita motor klasikoen erakustaldia be.
- 20:00: 'Nostradamus' (Vagalume) kale antzerkia, Andra Marian.
- 22:00: Kontzertua: Mahaster River, Goienkalen. Landako Gunean, Musika Elektronikoko Jaialdia: Tony Verdi, Julio Navas&David Amo, Dario Nuñez, David Medina, PG2, Trampas, Ivan eta Ima Txilaut dj-ekin.
- 23:00: Passarella orkestra, Ezkurdin.

URRIAK 11, DOMEKA

- 07:00: Diana, txistulariekin.
- 07:30: Zezenak Dira, dultzaineroekin.
- 10:00/14:00: Haur Parkea, Ezkurdin.
- 10:00: XXXV. San Fausto Marrazki Lehiaketa
- 11:00: X. Mikologia Erakusketa, Argazki Mikologikoen IX. Lehiaketa, eta 16 urtetik beherakoentzat IX. Sailkapen Lehiaketa.
- 12:00: Ponyak, Landako Parkean. Baita arku-tiro gunea be.
- 12:30: Animazinoa: Txiri Txiri, Alde Zaharrean.
- 13:00: Bilbainadak: Los Txikis, Andra Marian.
- 18:00: Kalejira: Pasai fanfarrea, Alde Zaharrean. Ezkurdin, Koadrilen Arteko I. Lehiaketa.
- 19:30: 'Ellas bailan solas' (Pikor Teatro) kale antzerkia, Andra Marian.
- 21:00: Areto dantzen jaialdia Tahuma orkestragaz, Ezkurdin.
- 22:30: The Bon Scott Band, Andra Marian.

URRIAK 12, ASTELEHENA
(Txikien Eguna)

- 07:00: Diana, txistulariekin.
- 07:30: Zezenak Dira, dultzaineroekin.
- 10:00/13:00: Trebetasun jokoak (Jugimobil), Ezkurdin. Baita 17:00etatik 20:00etara be.
- 10:30: Marmitako Txapelketa, Merkatu Plazan.
- 11:00/13:30: Txu-txu tren, Landako Gunean. Baita 16:30etik 19:00etara be.
- 11:30: 'San Fausto Jaiak' mural erraldoia, Andra Marian.

- 12:00: Erraldoi eta buruhandiak, Alde Zaharrean. Baita txikiendako entzierroa be, Ezkurdin hasita.
- 12:30: Umeendako tailerrak, Udaletxeko plazan.
- 13:00: Hankapaluekin animazinoa (Kilimixka) Alde Zaharretik Udaletxeko plazara.
- 13:30: Txupinazo txikia eta pregoia, Udaletxeko balkoitik. Ohorezko aureskua.
- 16:30: Abesti herrikoia: Bentazarreko Mutiko Alaiak, Merkatu Plazatik.
- 17:30: Moltó motorren kontzentrazioa, Andra Maritik Ezkurdira (2-5 urte).
- 18:30: Herri-txokolatada eta 'Abxikistan' umeendako erromeria, Ezkurdin.
- 20:30: 'Brokers' (Yllana) antzezlan, San Agustin kulturgunean.
- 21:30: Bizardunak (Euskal Radikal Folk), Andra Marian.

URRIAK 13, MARTITZENA
(San Fausto Eguna)

- 07:00: Diana, txistulariekin.
- 07:30: Zezenak Dira, dultzaineroekin.
- 10:00/14:00: Haur Parkea, Ezkurdin.
- 11:00: Meza nagusia, San Faustoko elizan.
- 12:00: Paella Txapelketa, San Fauston (izena emotea, 12:00etatik aurrera).
- 12:30: Txalaparta, Udaletxeko plazan. Ohorezko aureskua eta artopil banaketa. Ondoren, Dantzari Dantza (Platilu Soinua) eta Larraindantza
- 14:00: Bazkaria 3. adinekoentzat, Landako Gunean, Rex taldeak girotuta.
- 16:30: Umeentzat pony eta bigantxak, San Fauston. Incansables fanfarrea.
- 17:00/20:00: Zirku tailerra (Azukillas), Landako Parkean.
- 17:30: Txokolatada eta umeendako jolasak, San Fauston.
- 18:30: 'Caidos del cielo' (Ganso&Cia) kale antzerkia, Udaletxeko plazan.
- 19:00: 'Balkoitik balkoira': U. Iturriaga, X. Paya eta I. Elortza, Udaletxeko plazan.
- 20:00: Txarango Trio (Mocedades zena), Andra Marian.

URRIAK 14, EGUAZTENA

- 18:30: 'La producción de acero en Altos Hornos de Vizcaya' erakusketaren irekiera, Azterlan Metalurgia lkerketa Zentroan-

URRIAK 16, BARIKUA

- 17:00: DYAren ate irekien jardunaldia, Ezkurdin.
- 18:30: 'On egin mon amour' (Teatro Salitre-Teatro Mutante), Andra Marian.
- 19:00: 'Kapzuloa' performance-a (Koyame), San Agustin kulturgunean (20:00etan, 22:00etan eta 23:00etan be bai).
- 19:30: 'Balzac y la pequeña costurera' pelikula, San Agustin kulturgunean.
- 20:30: Nesken fanfarrea, Alde Zaharrean.

- 22:00: Erromeria: AIKO dantza taldea, Ezkurdin.
- 22:30: Bertso Jazz, Andra Marian.

URRIAK 17, ZAPATUA
(Mozorroen Eguna)

- 07:00: Diana, txistulariekin.
- 07:30: Zezenak Dira, dultzaineroekin.
- 10:00: Kalejira: Tabira musika banda, San Faustotik; Alde Zaharretik Ezkurdira, 11:00etan. Musika saioa, 11:45ean, Josemiel Barandiaran egoitzan.
- 11:00: Nekazaritza Azoka, Merkatu Plazan. Baita Artzain Gazta Txapelketa be.
- 12:00: VI. San Fausto Graffiti Lehiaketa (sariak, 19:00etan), Ezkurdin.
- 12:30: Batukada: Zo Zongó, Alde Zaharrean.
- 13:00: Haurren mozzorro desfilea eta sari banaketa, Andra Marian.
- 18:00: 'Mugi-mugi' haurrendako dantzaldia, Andra Marian.
- 18:30: II. Patata Tortilla Txapelketa, Merkatu Plazan.
- 20:00: 'Doctor Ficante' (Los Kikolas) zirko ikuskizuna, Ezkurdin.
- 21:00: Sugari fanfarrea, Alde Zaharrean.
- 23:00: Geiser orkestra, Ezkurdin.
- 23:00: El sueño de Morfeo, Landako Gunean.
- 00:00/03:00: Alkoholemia kontrolaren stand informatiboa, Goienkalen.

URRIAK 18, DOMEKA
(Ingurumenaren Eguna)

- 07:00: Diana, txistulariekin.
- 07:30: Zezenak Dira, dultzaineroekin.
- 10:00/14:00: Haur Parkea, Ezkurdin.
- 11:30/14:00: Ecojuga: Hondakinekin gauza erabilgarriak eginez, Udaletxeko plazan; 16:00etatik 19:30era be.
- 12:00: Ponyak, Landako Gunean.
- 17:30: 'Superplast' (Hortzmuga), Ezkurdin.
- 18:30: Alma Navarra (Nafarroako jotak), Andra Marian.
- 19:30: Jaien amaiera, Patxikotxu agurtuz: Biznietos de Celedon fanfarrea eta Acrovisión. Udaletxeko plazatik Landakora.

URRIAK 23, BARIKUA

- 19:30: 'El Mirador' obra (Gora ta Gora), San Agustin kulturgunean.

URRIAK 24, ZAPATUA

- 20:00: XV. Txistu Kontzertua, Landako Gunean.

URRIAK 25, DOMEKA
(XLIII. Umeen Euskal Jaia)


- 12:00: Dantza taldeen elkartzea Jesuitetan. Gero, desfilea.
- 17:00: Alarde orokorra, Ezkurdin.

Kepa Aginak

ARGAZKIAK

Komentu kalea 21
Durango - Bizkaia
www.kepaaginako.com
kepaaginako@hotmail.com
TLF: 94 681 74 41

- Karneteko argazkiak
- Errebelatuak
- Argazki erreportajeak
- Erretoke digitalak
- Estudioko argazkiak



Mikeldi 6, 48200 Durango • 94 681 38 95

Zapatu eguerdian hasi eta Landakon bukatu

Bihar hasiko dira jaiak, txupin jaurtiketa eta pregoiagaz



Lehenegoz, koloretan inprimatutako eskuliburu argitaratu dau Udalak jaien egitaraua etxez etxe zabaltzeko. Orain arte zuri-beltzekoa izan ohi da. Orokorrean, baina, eta jaien programazioari begiratuta, luxu handirik bako programazinoa antolatu dabe aurtengo Sanfausto jaien

Sokatiran, igelean, gurdian eta txokor zein txinga batzen jardungo dabe Koadrilen Arteko I. Lehiaketan

tarako, Jai Batzordearen ordezkariak eurek nabarmentzen dabe: bizi dogun krisi egoeraren eraginez, igaz baino 30.000 euro gitiago izan ditue 2009ko jaiak prestatzeko.

Hasi eta amaitu

Orain arte ohitura zen legez bari-ku iluntzean barik, zapatu eguerdian emongo jake 2009 honetan Durangoko San Fausto jaiei hasiera: aurtun 50. urteurrena ospatzen diharduen Tabirako saskibalo taldeak jaurtiketa dau txupina eta irakurri pregoia.

Santa Ana plazan egin dituen indusketa lanen ondorioz, jaietako egunak hasi ohi dituen 7:30etako Zezenak dira ikuskizuna

moldatu egin behar izan dabe: plazara ailegatu barik, kale artean ibiliko da zezena. Santa Ana plazan egiten dabilzen lanen ondorioz, gainera, arkitik barik

Bigarren urtez, Cesar Nuñezen kartela garaile

Leongo Astorgako Cesar Nuñez da aurtengo Sanfausto jaietako kartel lehiaketaren irabazlea. Igaz be, dantzaria protagonista eban kartelagaitik jaso eban lehenengo saria. Bigarren urtez jarraian irabazi dau, beraz, 1.000 euroko lehenengo saria. Apoak eta Santa Anako arkuak osatzen dabe 2009rako irudia.



Udaletxeko balkoitik ikusiko ditu jaiak Patxikotxuk aurtun.

Jaien amaierarako, Udaletxeko plazatik Landako erakustazokako plazarainoko bidea egingo dau Patxikotxuk jaiak agurtzeko. Biznietos de Celedón fanfarreak girotuko dau bidea, eta Acrovisión talde kataluniarraren piroteknia eta akrobazia ikuskizunagaz amaituko dira San Fausto jaiak: urriaren 18an 19:30etik aurrera izango da ikuskizuna.

Landako parkean izango da jaien amaierarako antolatu daben Acrovisión taldearen piroteknia eta akrobazia ikuskizuna

Koadrilen arteko lehia

Adin guztietako herritarrek jaietan aktiboki parte hartu daie eta koadrila giroa gailendu daiten antolatu dau Jai Batzordeak, lehenengoz, aurtun Koadrilen Arteko Lehiaketa. Talde bakotxeko gitxieneko partaide kopurua bost lagunekoa izatea ezarri dabe, eta bost dira gaititu beharreko frogak be: sokatira, txokor-batzea, igela, gurdia, txinga-batzea. Urriaren 11n, 18:00etan, Ezkurdin izango da lehiaketa.



Zurekin • ABADIÑO

Ondo pasan jaietan!



Urriaren 9an emongo deusie hasiera jaiari, txupinazoagaz

Txosnagunea, herriko elkarteen bilgune

Durangon makina bat elkarte dabilz eguneroko lanean, eta jaie-tan be euren ekarpena egingo dabe. Txosna batzordeak Zumar Kolean hartuko dau lekua aurten, eta bertan egitarau propioa eskainiko dabe. Behetik goraino, 13 txosna eta karpa bat ipiniko ditue, amaieran eskenatokiarentzako lekua eginez.

Kontzertuak

Urriaren 9an jaurtiko dabe txupinazoa Txosnagunean, iluntzeko 21:00etan. Horren ostean, egitarauko lehen kontzertua ospatuko da, Gose taldea tartean delarik. Trikia eta dancearen arteko nahasketa plazaratuko dabe arra-

Gaur txosnen egitarauko lehen kontzertua ospatuko da, Gose taldea tartean delarik

San Fausto egunean txosnen arteko bazkaria egingo dabe, eta hilaren 12an Gazte Eguna

satearrek. Beste kontzertu aipagarri bat Lor elorriarrena izan leiteke, hilaren 16an. 17an, ostera, KOP kataluniarrek beteko dabe oholta. Durangaldeko talde ugari be ikusiko doguz Txosnagunean.

Egunekoak

Kontzertuek garrantzia izan arren, eguneko eskaintza be badago gune honetan. Esaterako, San Fausto Egunean txosnen arteko bazkaria egingo dabe, eta hilaren 12an Gazte Eguna.

Umeendako ikuskizun dezente be antolatuko ditue, herrian zehar. Urriaren 17an, adibidez, ipuin kontalaria eta Kiki, Koko eta Moko pailazoekin dibertituko dira Pinondon.

Musika eta lehiaketak Gaztetxean

Ohi denez, Gaztetxean be egitarau propioa prestatu dabe jaietarako. Batez be, kontzertuak eta hitzaldiak hartuko ditu Sapuetxek, baina lehiaketa eta antzekoak be ez dira faltako.

Jaiak ondo hasteko, tortilla txapelketa ipini dabe gaur arratsaldeko, 17:00etan. Tortillak egin eta dastatu ostean, txupinazoa botako dabe, 19:00etan. Handik ordubetera luntxean elkartuko dira, eta 02:00etan karaokean abestuko dabe. Txiste txapelketarako deia be egin dabe ordu horretan. Lehiaketek domekan jarraituko dabe, musagaz; arratsaldeko 17:00etan izango da txapelketa hori.

Jaiak ondo hasteko tortilla txapelketa egingo dabe gaur arratsaldean

Bestalde, hitzaldia antolatu dabe hilaren 16ko arratsalderako, eta Txosnaguko hainbat ekintzagaz bat egingo dabe gaztetxe-ek: erreka jaitsieran eta Gazte Egunean, esate baterako.

Kontzertuak

Musika talde gazteek aukera ederra edukiko dabe Sapuetxeko eskenatokian. Talde gehienak eskualdekoak izango dira, baina aipagarria da DIY portugaldarren kontzertua. Urriaren 16an jarri dabe zita, iluntzeko 20:00etan.

Aipagarria da DIY portugaldarren kontzertua; 16an jarri dabe zita, 20:00etan



TOLDOS
LECE^{S/L}

Kataide industrialgunea,
14 pabiloia (Musakola-uzua)
Tel.: 943 792 383
Telefaxa: 943 770 445
20500 ARRASATE

Multakiera-uzua, 6
Telefaxa: 94 681 76 19
48215 IURRETA

Inork baino hobeto egiten diogu eguzkiari aurre

Launa plus
Ordu


Launa
Ardo

www.bodegaslauna.com
info@bodegaslauna.com
Tel.: 94 682 41 08

katerin
ardoak
iñaki
uribe

saltsan

ERROTZAILA, 40. KALDEA (HERRA) 48100 401 481
saltsan.com



San Fausto Egunez artopilak banatzen ditue

Tradizino handia daukien jaiak



I. Gorriti

Jaietako egitarauan urtero ekitaldi barriren bat antolatzen daben arren, tradizioak bere lekua izaten dau. Urteen joan-etorriagaz hainbat ekintza ohitura bilakatu diren arren, badagoz herrian errotuta dagozen beste usadio batzuk be. San Fausto Eguneko eguerdian, txalapartarien saioaren ondoren dantzariak ohorezko aureskua eskaintzen deusez alkate eta zinegotziei. Ondoren, udal arduradunek artopilak eta edaria banatzen deusez bertaratzen direnei.

'Platillu Soinua' orain hamar urte berreskuratu eban Kriskitinek. Humbolten idatzietan oinarritu ziren

Platillu Soinua

Ohiturari eutsiz, opilak banatu ondoren Kriskitin dantza taldeak Durangoko Dantzari Dantza eskainiko dau. Besteak beste, *Platillu Soinua* dantzatuko dabe.

Dantza hori orain hamar urte berreskuratu eban Kriskitinek. *Platillu Soinuaren* ikerketa egiteko Humbolten idatzietan oinarritu ziren. Idazleak bere idatzi batean deskribatzen eban Durangora egin eban bisita batean ikusi eban dantza.

Musika sortzeko partiturak topatu zitueen. Platilluen materiala zein izan zeitekeen jakiteko, Udaleko faktura bat topatu eban, "bertan agertzen zelako zein materialez eginak zegoen". Jasotako informazio hori guztia interpretatu eta Joan Mari Irigoienek dantzari forma emon eutsan. Berreskuratu eta hamarkada bat geroago, herriko dantza gaur egungo dantzariak eskaini-



ko dabe. Emanaldiagaz amaitzeko, Larraindantza eskainiko dabe.

Durangoko Udalak jaietan eta bereziki San Fausto Egunean "Durangoko jantzi tradizionala janzteko" gonbita egin deutse herritar guztiei. Alkandora zuriagaz eta gona edo praka urdinez jantzita ikusiko doguz aurten be makina bat durangar herriko jaietan.

Marmitako Txapelketa

Durangon antolatzen diren txapelketen artean baten batek arrakasta badauka, Merkatu Plazako Marmitako Lehiaketa da hori. Harrera hain ona izanda, ez da harritzekoa lehiaketaren parte-hartzea zozketa bitartez erabakitzea. Joan zen martitzenean erabaki eben parte hartuko daben 55 lagunak nortzuk izango diren. Aurten 123 lagunaren artean zotz egin dabe.

Lehiaketa baino gehiago, koadrilan bazkari ederra prestatu eta jateko aukera izaten da. Antolatzaileek atuna, olio, patatak, ura eta butanoa jarriko ditue parte-hartzaileen eskura. Osagai horreez gainera, piper txorizero sikua, piper berdeak, kipula, ardao zuria, berakatza eta gatza erabili leitekez.

Talde bakoitxak bi partaide izango ditu, eta hamar lagunendako marmitakoa prestatu beharko dabe. Beraz, urriaren 12an lapiko horreetatik jatera gonbidatutakoek indarrak berritzeko marmitako gozoa emotea eskertuko dabe.

Martitzenean erabaki eben Marmitako Txapelketan nortzuk parte hartuko daben. Guztira, 55 bikote izango dira Merkatu Plazan

Antolatzaileek atuna, olio, patatak, ura eta butanoa jarriko ditue parte-hartzaileen eskura. Gainerako osagaiak, bakoitxaren kontu


'Zezenak dira'-k Andra Maria dau topagune aurten

Goizeko 07:00etako txistularien dianak parrandazale askori gogorarazten deutso eguna laster argituko dauela. Ordu erdi geroago, Alde Zaharrean sokamuturra mar txan jarriko dabe. Lehenengo sokamuturra urriaren 11n izango da.

Aurtengo nobedadea ibilbide barria izango da. Orain arte, Santa Ana plaza izaten zen sokamuturra ikusteko topaleku nagusia. Plazan obretan dabilenez, Andra Marian izango da aurten topagunea. Gainerako ibilbidean ez da aldaketarik izango. Goienkale izan ezik, Alde

Harmailarik ez dabe ipiniko. 16 urtetik beherakoek eszenatokian egon beharko dabe.

Zaharreko beste kale guztietan ibiliko dira bigantxak. "Sokamuturra ikusteko leku gitxiago izango dogu aurten Andra Marian", azaldu deusku Natxo Martinez zinegotziak. Harmailarik jartzeko lekuri ez dagoenez, eszenatokian 16 urtetik beherakoendako lekua segurtasun neurriekin egokituko dabela gaineratu dau Martinezek. "Aurten 16 urtetik beherakoek sokamuturrean parte hartu ez daien zorrotzagoak" izango direla azpimarratu dau. Zinegotziaren berbatan, Joko eta Ikuskizun Sailak gazteak sokamuturrean ikusten baditu "ekitaldia bertan behera iztea" erabaki leike. Udaltzainak izango dira gazteen segurtasunaz arduratuko direnak.



• gosariak 6 30etik aurrera
• rabak eta mariskoa

Uda-Berri

goienkale, 10

94 681 80 41

San Fausto
jai zoriontsuak

BAR AIRRES

Akusatun etorbidea, 13
Tel.: 94 681 32 78
DURANGO

CERVECERÍA

Gambrinus

DURANGO

F. J. de Zumarraga 13
Tel.: 94 681 08 58
48200 DURANGO

BAR-PEGIAK

Ermoldo, 9 • Durango
Tel.: 94 603 03 58

Estatu mailako tortilla txapelketan 2º saria

telepizza®

2X1 Probatu gure pizza gainerrea asteko egun guztietan. (lokaletan)

Askatasun etorbidea, 25. Tel.: 94 621 81 86

IBALZABAL TABERNA

- Gosariak
- Ogitaratekoak
- Lapikotxoak
- Iberikoak
- Hanburgesak
- Plater konbinatuak

Ibalzabal auzunea
2 behea
Tel.: 94 655 01 85

Templete Jatetxea

Ospakizunak.
Karta.
Eguneko menua.
Menu berezia.

Hotel ***
Kurutzaga

Kurutzaga 52 • Durango
Tel.: 94 620 08 64

Umeak be protagonista izango dira

Ederto baten pasatzeko aukera izango dabe ume durangarrek. Eguneroko tarteaz gainera, urriaren 12rako Txikien Eguna prestatu deuse. Hilaren 25era artekoa da eskaintza; egun horretan, XLIII. Umeen Euskal Jaia ospatuko dabe.

Txikien Eguna

Goizeko 10:00etan hasiko da umeentzako egun berezia. Trebetasun jokoetan parte hartuko dabe Ezkurdin, eta Umeen Xake Txapelketa be jokatu da 11:00etan Andra Marian. Horrez gainera, erraldoi eta buruhandiak ibiliko dira alde zaharrea, giroa berotzen. Entzierro txikiagaz korrikaldiak biziko ditue alde zaharrea, eta gero, 13:30ean, txupinazo txikia eta pregoia botako ditue.

Urriaren 12an, 13:30ean, txupinazo txikia eta pregoia botako ditue

Arratsaldean jarraituko dau jaiak, besteak beste, Moltó Motorren kontzentrazinoagaz.

Polemika zezenketekin

Gainerako egunetan pailazoak, dantzaldiak eta animalia arteko jolasak izango ditue umeek. Animalien aldeko eta zezenketan kontrako Bizkaiko elkarteak salaketa jarri eban horregaitik, baina Natxo Martinez zinegotziaren ustez, "hobeto informatu beharko leukie". Bere esanetan, entzierro txikia zezen faltsuekin egiten da, eta sokamuturran legea ondo betetzen da. Poniak eta bigantxak benetakoak izango dira, baina 70 kilotik beherakoak; "legearen barruan", Martinezen arabera.

Bertsoez gozatzeko hainbat bide aukeran

'Bertsoa&Jazz' zein 'Balkoitik Balkoira', Sanfaustoen eskutik



eta lagun izango ditue Bixente Martinez, Haritz Oleaga, Asier Ituarte, Jon Piris eta Julen Izarra musikariak.

'Lau oinak emonda. Bertsolaritzari lau begirada' erakusketa ikusgai, San Agustinen

Munduan inprobisazinoan oinarritutako bi kultur adierazpen garrantzitsuenak elkartuko ditue: jazzaren musika inprobisatua eta bertsolarien berba inprobisatuak. Musikariek bertsolariekin eta bertsolariek musikariek, batera inprobisatuko dabe benetako elkarrizketa sortuz: musika izango da bertsolarientzako gaia eta bertsok musikarien gaia, protagonisten euren berbetan.

Argazkiz eskainitako begirada

Dena dela, ez da hori bertsozaleendako hitzordu bakarra. *Lau oinak emanda. Bertsolaritzari lau begirada* argazki erakusketa zabaldu dabe San Agustin kultur-gunean. Lau argazkilarik bertsolaritzari botatako begiradak izango dira, urriaren 18a arte: Galder Izagirre, Gari Garaialde, Alberto Elozegi eta Raul Bogajoren begiradak. Eta ezin ahaztu, urtero jaietan bertsolariekin ohiko hitzordu bihurtu dena: 'Balkoitik Balkoira' jardungo dabe Igor Elortza eta Unai Iturriaga durangarrek eta Xabi Paya algortarrak, San Fausto Egunez, 19:00etan, Udaletxeko plazan.

Musikari eta bertsolarien arteko elkarrizketa eratuko dabe Bertsoa & Jazz ikuskizunean

Bertsoa eta jazz, biak uztartzen dituen ikuskizuna izango da ikusgai San Agustin kultur-gunean, Sanfaustoak atxaki. Goi-mailako bertsolari eta musikariak batuko dira oholtzan, bertsoaz gozatzeko era barria eskainiz: Bertsoa & Jazz.

Andoni Egaña, Maialen Lujanbio, Amets Arzallus eta Jon Maiak jardungo dabe bertsotan,

GARCIA ARINO KIROLAK
San Ignazio Auzunea, 4A
Tel.: 94 681 77 55
48200 DURANGO (Bizkaia)
Ona pasetan San Faustoen AUPARI

AMAYA
AUTO KONPONKETAK S.L.
UAI, 1 INDUSTRIAGUNEA (Orozketa errepidea)
48215 Iurreta / Bizkaia
126 Posta Kutxa Durango
Tel.: 94 681 21 23 • Fax: 94 620 38 18 • email: oficina@amayautoreparaciones.com • www.amayautoreparaciones.com

Juan Ramon Azkonizaga
Ortuzar auzoa, 1 - IZURTZA Biltegia: 94 681 06 52

Banatzaillea:

TODO SPORT
ARRIETA-KIROLAK

askatasun etorb. 5 • Durango
telef.: 94 681 74 83

El Sueño de Morfeok zuzenean joko dau jaietan

Esna gozatzeko ametsa Landakon

Denen gustuak asetuko dituen musika egitaraua osatzea lan gatxa da. Bakotzak bere erara entzuten eta gozatzen dau musika, eta gero horixe ikusi gura izaten dogu zuzenean. Eta denen musika gosea ezin leiteke asetu. Sanfaustoetan menu tentagarria osatu dabe, probatu gura daunarendako. El Sueño de Morfeok pop-rock zaleak batuko ditu. The Bon Scott Band-en zuzenekoak txima luzeen eta kamiseta beltzen kontzentrazinoa ekarriko dau. DJ jaialdia be antolatu dabe technoaren jarraitzaileendako. Horri guztiari askotarikorkestrak eta kaleetako giroa alaitzen ibiliko diren trikitilariak zein Bilbainada saioak gehitu behar jakoz.

Beharbada Morfeorena ez, baina Asturiasko taldeak zale askoren ametsa errealitate bilakatuko dau, seguru. Maiatzean kaleratu eben *Cosas que nos hacen sentir bien* lana aurkeztuko dabe urriaren 17an, 23:00etan, Landako Gunean. 2002an sortu eben taldea, eta harrezkero lau lan argitaratu ditue. Asturiarren aurretik, Nahixa taldeak joko dau; Mutrikuko eta Ondarroako lagunek osatzen daben taldeak estreina-ko lana aurkeztuko dau.

Bihar musika elektronikoa oinarri dauen jaialdia antolatu dau Idabamusik-ek Landako Gunean. Honako dj-ak ibiliko dira jentea mugiarazten: Tony Verdi, Julio Navas eta David Amo, Dario Nuñez, David Medina,

Biharko musika elektronikojaialdia antolatu dabe Landako Gunean; zortzi dj-k jardungo dabe

PG2, Trampas, Ivan eta Ima Txilaut. Sarrera 10 euro da. Guztiz musika ezberdina poposatuko dau The Bon Scott Bandek; AC/DCren abesti ezagunenak joko ditue rocka eta umore ona uztartuz. Sarritan jo dabe Durangaldean, eta zuzenean ikusi dituenak badaki ikuskizuna emongo dabela.

Durangoko kaleak eszenatoki mugikor bihurtuko dira jaietan. Hilaren 10ean, Broken Brothers Brass Bandek

The Bon Scott Band, Bizardunak eta Txaranga Trioren kontzertuek be ikusmina sortu dabe

Ezkurdiko plazak Passarela eta Geiser orkestren emonaldiak hartuko ditu Sanfaustoetan

eta Mahaster River blues taldeak Goienkale musikaz jantziko dabe. Domeka eguerdian, Txiri Txiriren trikitixa doinuek eta Los Txikis taldearen Bilbainadek hartuko dabe lekukoa.

Ezkurdiko plazak Passarela eta Geiser orkestren kontzertuak hartuko ditu. Andra Marian, barriz, Bizardunak-en eta Txaranga Trioren (Mocedades taldeko kide ohiak) zuzenekoak izango dira. Kantu herrikoien zaleak Bentazaharreko Mutiko Alaiak taldeagaz hitzordua dauka, Merkatu Plazan, hilaren 12ko astelehenean.

Musika egitarau oparoagaz amaitzeko, urriaren 24ko zapatuan, Silboberri txistu elkarteak XV. Txistu Kontzertua eskainiko dau Landako Gunean, 20:00etatik aurrera.



El Sueño de Morfeok hilaren 17an joko dau



Kataluniarrek AC/DCren bertsinoak joko ditue



Bizardunak taldeak Andra Marian joko dau

oiZ
M.Z.O ITURGINTZA
GASA BERDAILUAK
ERAIKUNTZA S.L.

Billegia:
LIAI Industriagunea
2C-48215 JURRETA
Tel.: 946 816 051
Faxa: 946 818 545

Erakusketa-Denda:
Plateruen Plaza, z/g
48200 DURANGO
Tel.: 946 810 693
Faxa: 946 818 545

altzariak
gandarias

Etixerako dekorazioa

Ermodo kalea, 13-25
Tel.: 94 620 26 64
DURANGO

Arkotxa kalea, 8
Tel.: 94 681 07 22
DURANGO

Hamaika modu kirolaz gozateko

Sanfaustoetan erabakiko ditue Zesta Txapelketako irabazleak



Zumaiaiko Susino-Barrenetxea bikoteen artean dago. Durangoko talde biak txapelketatik kanpora geratu dira. Finala urriaren 18an jokatu dabe, 11:30ean hasita. Eskupilotari jagokonez, martitzenean Durango Pilotazale Klubak elkarteko gaztetxoaren arteko pilota txapelketa antolatu dau; San Fausto frontoian jokatu dabe partiduak.

Bihar Tabirako Baquék Bidegintza taldea hartuko dau Landako Kiroldegian. Datorren eguaztenean, barriz, Durangoko Kulturalak Elgoibarren kontra jokatu dau Tabiran.

Jaiak atxakia aproposa dira hain zabalduak ez diren kirolak herritarrei hurreratzeko. Bihar, 18:00etan, Ros anaiek trialeko bizikletagaz eta motorragaz akrobaziak egingo ditue San Fausto auzoan. Etzi, eguerdian, arku-jartiketa praktikatu ahalko da Landako Parkean. Euria egiten badau, Landako Gunera tokialda-

tuko dabe ekitaldia. Datorren martitzenean eta zapatuan, barriz, herri kirol misto eta skate erakustaldiak egingo ditue Ezkurdin, hurrenez hurren. Azkenik, hilaren 18an, Durangoko Txirrindularitza Elkartek 8-14 urte arteko gaztetxoei zuzendutako Bizikleta Festa antolatu dau Fray Juan de Zumarragan. Bizkaiko txirrindularitza eskolak batuko dira bertan.

Larrasoloeta xake taldeak ekitaldi bi antolatu ditu; gaztetxoendako txapelketa astelehenean eta ez federatuendako torneo hilaren 17an.

**Trialeko bizikletagaz
eta motorragaz
akrobaziak eskainiko
ditue Ros anaiek,
bihar, 18:00etan, San
Fausto auzoan**

**Durangoko
Txirrindularitza
Elkartek Bizikleta
Festa antolatu dau
8 eta 14 urte arteko
gaztetxoendako**

Zesta, pilota, saskibaloia, futbola, skatea, xakea... Gustuetarako dagoz koloreak eta Sanfaustoetan kirol eskaintza zabala antolatu dabe beste behin. Kulturalak eta Tabirakok partiduak ditue, eta San Fausto Zesta Txapelketa azken txanpan sartuta dago.

Ezkurdi Jai-Alai zesta-punta eskolak eta Peña Ezkurdik antolatzen daben txapelketako finalerdiak etzi jokatu ditue, 11:30etik aurrera. Inciarte eta Alain gas-teiztarrek Lizasoain eta Maikol andoiandarren kontra jokatu dabe lehenengo partiduan; finaleko bigarren txartela Gernikako Bidaburu-Mancisidor eta

**San Fausto Zesta
Txapelketako finala
nortzuk jokatu daben
domekan erabakiko da;
finala hilaren 18an
jokatu dabe Jai-Alain**

**Durangoko Kulturalak
eta Tabirakok ligako
jardunaldiak ditue,
Elgoibarren eta
Bidegintzaren kontra,
hurrenez hurren**



AGIRREZABAL
DURANGO
C.P. 48200
e.aguirrezabal@euskalnet.net

olektrotresnak
Tel.: 94 620 22 84
Fax: 94 620 22 84
Juan Antonio Abasolo, 10

zikloak
Tel.: 94 681 03 88
Fax: 94 620 22 84
fco. Ibarra, 7 mikeldi

SEGUROS BILBAO

Grupo **CATALANA OCCIDENTE**

Askatasun Etor. 1
48200 Durango
Tel.: 94 681 17 79
Faxa: 94 620 19 23
email: agarro@segurosbilbao.com

Aitor Garro Mendiola

MAILBOXES ETC.
Olleria, 3 - DURANGO
Tel. 94 621 53 68
mbe157@mbe.es

Bidalketak

Diseinu Grafikoa

Inprimaketa

Zure zerbitzu gunea

PROMOZIO PRODUKTUAK IMPRIMAKETARAKO

CHAYES

TAPIZAK
MOKETAK
ALFONBRAK
GORTINAK

LARRUKIAK
LANERAKO BABES-JANTZIAK
INDUSTRIAKO HORNIGAIK

TAILERRA:
Pinondo plaza, 2
Faxa: 94 620 09 38
DURANGO

DENDA ETA ERAKUSKETA:
Erretanbu, 28 behe
Tel.: 94 681 11 80
DURANGO

HITZ

Liburu

TI: 94 681 07 76 Artekale, 14 Durango

ALMACENES ARRASATE



Kataide Industrigunea, pab. 3
20500 Arrasate-Mondragon
Tel.: 943 77 13 52-77 00 34
Faxa: 943 77 13 13

**ORAIN
DURANGON!**

Intxaurrondo, 12 behea
48200 Durango
Tel./Faxa: 94 681 34 85



2

1200 b/min
8 Kg

A+ Salkapen energetikoa

GARBIGAILUA F-2812

465-105=360€ **FAGOR**

2

1000 b/min
8 Kg

A+ Salkapen energetikoa

GARBIGAILUA WAE 20161

435-105=330€ **BOSCH**

2

1000 b/min
6 Kg

A+ Salkapen energetikoa

GARBIGAILUA 3F-1610

335-105=230€ **FAGOR**

2

1000 b/min
5 Kg

A+ Salkapen energetikoa

GARBIGAILUA ALF-110

280-105=175€ **aspor**

RENOVE PLANA

GARBIGAILUAK
ONTZI-GARBIGAILUAK
HOZKAILUA
IZOZKAILUA
LABEAK **-75 €**
A -85 €
A+ -105 €

2

144
x
55
x
60

A+ Salkapen energetikoa

HOZKAILUA AFD-145

295-85=210€ **aspor**

2

185
x
60
x
60

A+ Salkapen energetikoa

HOZKAILUA DREAM 185

490-85=405€ **edesa**

2

200
x
60
x
60

A+ Salkapen energetikoa

HOZKAILUA KGN 39 A73

825-105=720€ **BOSCH**

A+ Salkapen energetikoa

INDUKZIOA IF-3S/X

475 € **FAGOR**

A+ Salkapen energetikoa

LABEA ETA BITROZERAMIKA

360-75=285€ **aspor**

Europar Batasaren arauak aztertzen diren bakoitz bakoitz energia kontsumoaren arabera energia-efizientzia.

A+++ 70%
A++ 45%
A+ 25%

Biltegiko prezioak. Deskontu handiak. Kooperatibistendako prezio bereziak.
Sukalde altzariak: proiektua eta aurrekontua DOAN, Konpromiso barik.
Zatoz eta ezagut gaitzazu. Intxaurrondo 12 behea, Durango.

“Lan handiko urtea da, baina oso polita”

Tabirakoko lehendakari legez Hilario Perezek botako dau txupinazoa Udaletxeko balkoitik, eta berak irakurriko dau jaiiei hasiera emongo deutesen pregoia

Prestatu dozu pregoia?

Bai. Gehienbat eskerrak emoteko pregoia izango da, 50 urte honeetan kluba orain dagoen tokira ailegatzen lagundu daben denei zuzendutakoa.

Urteurrena dela-eta, hamaika ekitalditan agertzea egokitu jatzu. Zelan daroazu denean egon behar hori?

50 urte ez dira urtero betetzen, data inportantea da eta erantzukizunez jokatu beharra dago. Lan handia eskatzen dau, baina karguagaz batera dator. Asteburuan, esaterako, Bilbao Basketeko partidua ikustera gonbidatu nindueen.

“Guri jagoku urteurrena gidatzea, baina aurretik jente askok egindako lanaren fruitua da orain jasotzen gabilzena”

Jose Luis Bilbao Bizkaiko ahaldu nagusiak zoriondu ninduen gure urteurrenean, eta egunen batean partiduren bat ikustera etorriko zela esan eustan. Egia esanda, pozgarria da Tabirakoren urteurrenak Durangotik kanpora bezeresana emon dauela ikustea.

Egindako lanaren emaitza jasotzen zabilze.

Baina ez gure lanarena bakarrik. Hori argi itzi gura dot. Zuzendaritza honi tokatu jako urteurrena gidatzea, baina aurretik jente askok egindako lanaren fruituak jasotzen gabilz.

Urteurreneko ekitaldiek ia datorren urteko Sanfaustoetararte iraungo dabe.

Ekainera arte iraungo dabe: denboraldia amaitu arte. Hamaika ekitaldi dagoz. Lan askoko urtea da, baina polita aldi berean.

Ekitaldi batzuk burutu dozuez dagoeneko. Zer balorazino egingo zeunke orain artekoaz?

Mailarik goreneko taldeek bisitatu dabe Durango, eta jente asko erakarri dabe. Horrez gainera, ekitaldiak antolatzeke eduki dogun bolondres kopuru handia azpimarratu gura dogu. Bazkide denen artean laguntza eskatu genduen, eta ia 70 lagun batu ginen. Hori da Tabirakok daukan ondarrerik baliotsuena.

Asteburuan Saskibaloi Jaia ospatu dabe Landakon, eta 1.300 gaztetxo batu dira.

Epe luzera begira, oso datu pozgarria da. Orain zortzi urte dau-



“Lagunekin egoteko aprobetxatuko ditut jaiak. ‘Zezenak dira’ ekitaldian urtero egoten naz, eta aurten be ez dot hutsik egingo”

“Jaiak egun bat geroago hasita aurreztuko daben dirua gizarte gaietarako erabiliko dabe; hori da jaietako ekintza nagusia”

kiezen gaztetxoei ibilbide luzea geratzen jake aurretik. Poza emoten dau Tabirakoko lehendakari zein saskibaloi zaletu moduan.

Zelan biziko ditu Hilario Perezek Sanfaustoak?

Jai giroagaz gozatzeko eta lagunekin egoteko aprobetxatuko dot. Horrez gainera, Zezenak dira ekitaldian urtero egoten naz, korrika zein ikusle legez, eta aurten be ez dot hutsik egingo. Jaien antolaketak dela-eta, gauza bat azpimarratu gura dot: krisiagaitik txupinazoaren eguna aldatzeko erabakiari zuzena deritzot. Hor aurretzen daben dirua gizarte gaietarako da. Nire ustez, hori da jaietako ekintza nagusia.

Audi Q5

ALLUITZ MOTOR, S.A.

Comercial AUDI
Estanislao Labairu, 3
Telf.: 94 621 73 27
Fax: 94 620 10 75
48200 DURANGO

Comercial VW / Taller
Alluitz, z/g.
Telf.: 94 620 20 04
Fax: 94 620 09 98
48200 DURANGO



ERITZIA[>]

kolaborazinoa



Marisa Barrena

Gutunak @

Presoekiko elkartasunaren adierazpenak eta debekuak

Gure senide preso politikoen argazkiak erakusteko jasotzen ari garen debekuen aurrean, gure iritzia kaleratu nahi dugu, baita presoekiko erabiltzen ari den politika kriminalaren salaketa egin ere; izan ere, gure senide preso politikoa soilik hiltzeko etxeratu nahi dituzte. Hala esan digute espaniar eta frantziar agintariek: beraien ideiez eta bizitzaz damutzen ez diren bitartean, kartzelan izango dituztela, eta horren adibide ditugu gaixotasun larriak dituzten presoak eta espetxe zigorra bere osotasunean bete dutenak. Gure senide preso politikoa bizi baldintzarik gogorrenetan, urruntasunean eta bakartasunean dituzte, gaixotasun fisiko nahiz psikiko larriak izatera, gaixorik direnen osasun egoera okertzera nahiz bere buruaz beste egitera bultzatuz.

Geroz eta gehiago gara bi estatuen espetxe politika jasaten ari garen senideak ere. Haur, gazte, heldu nahiz adindu izan, behartutako ehunka eta ehunka kilometro egin behar ditugu, astero, gure senide preso politikoa ikusteko.

Estatuek kilometro horiek guztiak egitera behartzearekin istripuak izatera bultzatzen gaituzte. Errepideetan hiltzera edo zauri larriak jasatera, alegia.

Non daude inpunitate espazioak?

Gure elkarretaratzeekin gauza horiek guztiak salatzea nahi dugu. Gure helburua ez da izan eta ez da izango inor mehatxatzea edo/eta iraintzea. Gezurretan dabilta halakorik esaten dutenak.

Eta haien aurrean eta gizartearen aurrean publikoki gure senideen egoeraren testigantza ematen jarraituko dugula adierazi nahi dugu.

Durangoko euskal preso politikoen senideak

Zatoz Abadiñoko gazte topaketetara

Azken urteotan, euskal gazteria etengabeko talkan bizi da, bai estatuekin bai honeek bultzatutako sistema kapitalistarekin. Eredu inposatu horreek eragin zuzena daukie gure baliabide ekonomikoetan, aisialdian, pentsamoldean, harreman kolektibo zein pertsonaletan, lan baldintzetan eta, laburbilduz, egunerokotasunean izatera bultzatzen gaituen jarretan.

Hauetanguztietan, kapitalismoak eta berak darabilen logikak negatiboki eragiten dauela ulertzen dogu. Diru irabazien logikak agintzen dau; pertsona, gazte eta herri legez kaltetu eta zapaltzen gaituelarik.

Baina ez gagoz konforme! Espazio askeak sortu eta bestelako ereduak eraikitzeke antolatzen gabilz Euskal Herri osoan.

Durangaldean be (nahiz eta batzuek kontrakoa ikustarazi gura daben), gazteriaren sektore zabal batek gure aurreko belaunaldiak ereindakoa lantzen jarraitzeko asmoa dauka; nork bere esparruan ekarpenak eginez, eredu alternatiboak eraikitzea bidean.

Ibilbide horretan aurrera egiteko, ezinbestekoa da herririk herri eremurik hurbilenak lantzen hastea; horreexek izango doguz-eta etorkizuneko oinarri.

Norabidea guztion artean zehaztu ahal izateko, eskualdeko Gazte Mugimenduko eragileok datorren urriaren 30etik azaroaren 1era Abadiñon burutuko diren Topaketetan parte hartzeko deialdia luzatzen deusuegu.

Bertan hitzaldi, eztabaida eta tailerren bitartez aisialdi ereduak, sorkuntza proiektuak, sexualitatea, ikasleen eskubideak, AHTaren eraginak edo feminismoa jorratuko doguz, besteak beste. Gaur egungo sistemari buruz hausnartu eta ordagoa botatzeko aukera paregabea! Zatoze Abadiñora eta ekin daiogun batera!

Durangaldeko Gazte Mugimendua

Urriaren 12an guztiak klasera, guztiak lanera!

Mendeak daramatza gure herriak, Euskal Herriak, zapaldurik. Ez dugu urrutira begiratu beharrik horretaz konturatzeko; egutegietan agerikoa da zapalkuntza hori, gorritz agertzeagatik ospatzera derrigortzen dizkiguten egun horietan. Zapalkuntzaren sinbolismo huts horrek, hitza esanahiz betetzen du, ordea.

Bada, goazen argi hitz egitera. Urriaren hamabigarren eguna Espainiar Inperioaren eguna da; "Hispaniar arrazaren" eguna ospatzen da. Amabirjina, santu, apezpiku, errege eta mota guztietako militarren artean, Guardia Zibila ere goraipatzen da Pilaricaren egun horretan. Inposatzen diguten egutegi horretako urriaren 12a Guardia Zibilaren eskuetatik igarotako ehunka euskal militanteek isuritako odolak gorritu du, ez beste ezerk. Hori dela-eta, ez dugu onartzen urriaren 12a jai egun izatea. Ondorioz, urriaren 11n Ezker Abertzaleak ez ditu txosnak irekiko.

Herriko gazte eragileek, bestalde, Gazte Eguna antolatu dute urriaren 12rako. Egun horretan Guardia Zibila omendu orde, gazteek borroka grinaren eguna ospatuko dute; askatasun gosez kalean, ikastetxean, unibertsitatean, espetxean, sasia zein gaztetxean borrokan dabilzanen eguna. Ekimen desberdinen bidez borroka eta festa uztartuko dituzte: goizean herri eskolen txanda izango da; arratsaldetik aurrera, oster, parranda nagusituko da Durangon, herriko jaien harira.

Horrenbestez, dei egiten diegu herritarrei (durangarrei zein kanpotarrei) urriaren 11n Durangora ez etortzeko; ezer ospatzen ez dugulako, ez ditugu txosnak irekiko. Bestalde, urriaren 12an durangarrak lanera edo herri-eskoletara joatera animatzen zaituztegu. Jai egun inposatuei intsumisioa!

Durangoko Ezker Abertzalea

Iurretako dantzariak lokal barik

Idatzi honen bitartez asteartean, irailaren 29an, mezara berandu heldu izanaren arrazoia zein izan zen azaldu nahi dugu:

-IMiko lokala guri ezer esan gabe zatitu eta gure erremintak, arropa eta gainontzeko trasto guztiak horietako gela batean giltzapetu zituzten, gure gauzak ezin hartu genitzakeelarik. Ondorioz, udal ordezkarien atzetik ibili behar izan genuen giltzak eskuratzeke.

-Horregatik, kalejira agintariekin ez egitea erabaki genuen, dantzariak lokalik gabe geundela adierazteko eta beraien inplikazio falta salatzeke.

-Goiz horretan alkatearekin hitz egin ostean, kalejira egiteko eta biharamunean alkatearekin batzar bat egiteko akordiora heldu ginen. Bertan gure kezka eta proposamenen berri emateko asmoz, argi utzirik dantzariok plazan lokala behar dugula.

-Batzarrean, agintarieke zituzten dantzarien beharrianak kontuan hartu, eta beraien proposamen bakarrak Goiuria kultur gunea eta IMiko lokala izan ziren.

Lehengoa ordutegi, espazio eta kokapen ezegokiagatik, eta bigarrena egin duten zatiketa horren ondorioz erabiltezin bihurtu dutelako, baztertuta ditugu.

Hala ere, frontoiko bolatokia ere aipatu zuten eta denen artean aukerarik onena azken hau irudituz zaigu, frontoi barruan entsaiaitu dezakegulako eta plazatik gertu dagoelako.

Momentu honetan Udaletxearen erantzunaren zain gaude, eta hauek bolatokiare proposamena atzera botaz gero, dantzariok eta gure ondorengoak ensaiatzeko toki aproposik gabe geldituko gara.

Iurretako dantzen etorkizuna jokoan dago! Dantzariok lokala plazan!

Mikel Deuna dantza taldea

Haize freskoa

Asteon hasi da Durangoko Plateruena antzokian Aiko taldearen eskutik plazako dantza ikastaroa. Irakasle lanean dabilzan Sabin eta Larraitzek ederto azaltzen duten moduan, dantzan/dantztaz gozatzea da haien helburua.

Egia esan, aikotarrek dantza irakasteko metodologia motibatzailea erabiltzeaz gain, azalpen oso interesgarriak ematen dituzte, betiko mitotatik eta tradizioaren purismo zurrunik aldenduz. Bazen gure dantza munduan haize freskoa arnasteko ordua. Bazen betiko topikoak alde batera utzi eta dantzaren unibertsaltasunaz zer bait entzun eta ikasteko sasoia.

Nire iritziz, nekez aurki daiteke dantzan ikasteko eta egiteko aukera hoberik. Euskara ederrean, gainera. Oraingoz, hirurogei bat ikasle dira aurtengo bezeroak. Gizonezkoak ehuneko hamar bat izango dira. Argi dago Durangaldeko emakumeen dantza zale-tasuna.

Baliteke emakumeen partaidetza hau beste gune batzuetan gizonak baino aukera gutxiago dutelako izatea ere. Hortxe ditugu, esaterako, Gerediagak urtero antolatzen duen Ezpatadantzari Eguna, emakumeek ez arterik ez parterik izaten ez duten eguna, edo berriagoa den *Urriena* izeneko Iurretako dantzarien eguna; gizonen eguna.

Ingurumari honetan behinola lagun batek esandakoa datorkit burura: talibanak Afganistanen ez eze gure inguruan ere, egon, badaude. Ez nuke inor mindu nahi, baina, osterantzean zelan ulertzen da betiko dantzariak diren andrazkoek euren herriko plazan lekuri ez izatea?

Eskerrak plateruek eta aikotarrek ez gaituzten diskriminatzen.



EUSKO JAURLARITZA
GOBIERNO VASCO

Kultura Sailak
(Hizkuntza Politikarako Sailburuordetza)

diruz lagundutakoa



anboto
durangaldeko astekaria

Anboto komunikabideak Elkartea
2009ko urriaren 9a - 8. urtea - 346 zk.

Laguntzailea:	Eta honako Udal guztiak:
	Abadiño Elorrio Mallabia
	Atxondo Garai Mañaria
	Berriz Iurretza Otxandio
	Durango Izurtza Zaldibar

Zuzendaria:
Jone Guenetxea.

Erredakzio burua:
Joseba Derteano.

Administrazioa:
Itziar Belar eta Miren Abasolo.

Publizitatea: Itziar Azula, Goretti Alonso eta Amaia Huarte.

Erredakzioa:
Aitziber Basauri, Pello Mugarza, Itsaso Esteban, Markel Onaindia

Testu zuzentzailea: Igor Elortza.

Maketazioa:
Ainhua Arizmendiarieta.

Argazkilariak: Iban Gorriti, Judit Fernandez eta Kepa Aginako.

AGENDA>

>ANBOTOk agendan ezer iragarri gura badozu, agenda@anboto.org helbidera idatzi edo 94 623 25 23 telefonora deitu egiguzu, eguazten eguerdi aurretik.



Urriaren 9an, 22:00etan KABARET DOINUAK

Parisen (Frantzia) 40ko hamarkadan girotutako antzezlanak ekarriko dau El Gato Negro antzerki konpainiak Elorriora. Umorea erabilita orduko urte hareetan zehar ibilbidea eskainiko dabe Arriola antzokian. Horretarako, Frantziar kultuzko artista den Boris Vianen abestiak izango ditue bidelagun. Antzezlaren ardatz diren batutako hamar abestien tematika zein estiloa zabala da: tangoa, cha-cha-cha, rock&rolla, jazz...

ANTZERKIA

BERRIZ

- » **'Mejor tarde que nunca' (La Tarde)**. Urriaren 9an, 22:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

- » **'Aitarekin bidaian' (Hika Teatroa-Donostia)**. Urriaren 15ean, 20:30ean, San Agustin kulturgunean.



ELORRIO

- » **'Cabaré de caricia y puntapié' (Cia. De Teatro El Gato Negro)**, urriaren 9an, 22:00etan, Arriolan.

ERMUA

- » **'i A Gusssssstol' (Gorka Aginalde eta Gurutze Beitia)**, urriaren 9an, 22:15ean, Lobiano kulturgunean.



- » **Umeendako antzerkia: 'Karmela, bizitza osoa' (El Retablo-Madrid)**, urriaren 10ean, 17:00etan, Lobiano kulturgunean.

ZORNOTZA

- » **'Babiloniako loreak' (FTI-Antzerkiola Imaginarioa)**, urriaren 9an, 21:00etan, Zornotza Aretoan.

BERBALDIA

ELORRIO

- » **'La cenicienta que no quería comer' liburuaren aurkezpena**. Urriaren 9an, 20:00etan, Iturri kultur etxean. Ondoren, helduentzat ipuin kontalaria.
- » **'Ortuari ekologikoak baserritik zuzenean etxera'**. Urriaren 15ean, 19:00etan, Euskadiko Kuxaren aretoan. EHNE sindikatuak erata.

BESTEAK

DURANGALDEA

- » **Ondarearen Europako Jardunaldiak: 'Bizkaia a través de los caminos'**. Urriaren 10 eta 11n, Merinoaren Ibilbidea. Durango, Abadiño, Elorrio, Garai, Iurreta, Izurtza, Mañaria eta Otxandio udalekin batera Gerediaga eta

Urkiola Durangaldeko Landa Garapena elkarteek antolatuta. (688 632 284)

ZALDIBAR

- » **Gaztelekua (12-16 urte)**. Urriaren 9, 10 eta 11n, 16:30etik 20:30era.

ZORNOTZA

- » **'Mangamore' manga-anime jardunaldiak**, urriaren 10, 11, eta 12an, 10:00etatik 22:00etara, Zelaieta Zentroan.



DEIAK

DURANGO

- » **Genero biolentziaren aurkako elkarretaratzea**. Eguenero, 20:00etan, Andra Mariko elizpean. Durangoko Plataforma Feministak deituta (Bilgune Feminista eta Andereak elkarteak).
- » **Odola emoteko aukera**, eguenero, 16:30etik 21:00etara bitartean, Anbulatorio Zaharrean. Mugarra odol-emaila elkarteak deituta.

ERAKUSKETA

DURANGO

- » **'Lau oinak emanda Bertsolaritzari lau begirada'**, urriaren 18a artean, San Agustin kulturgunean. Euskara zerbitzuak antolatuta.
- » **'Durango Uria' 9. Marrazki Lehiaketara aurkeztutako lanak**, urriaren 18a arte, Ezkurdiko aretoan.

- » **Marrazkiak eta margoak. Isusi Renteria**. Urriaren 25a arte, Arte eta Historia Museoa. Baita Sanfaustoetarako aurkeztutako kartel iragarleen erakusketa be.

ZORNOTZA

- » **'Urdaibai' (Unesco Etxea)**, urriaren 16a bitartean, Zelaieta zentroan.

IKASTAROAK

ABADIÑO

- » **'Sexuaz hitzegingo?'**. Urriaren 23tik abenduaren 18ra, barikuetan, 18:00etatik 21:00etara. Izena emoteko Errota edo Txanporta kultur etxeetan.

BERRIZ

- » **Feminismoari buruzko tailerra**, azaroaren 27a bitartean,

barikuetan, 16:30etik 18:30era, Kultur Etxean (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGO

- » **Zaindu egitasmoa: Mendekotasuna daukien adinekoen zaintzaileei zuzendutako prestakuntza ikastaroa: Norbere burua zaintzea + Erlaxazio tailerra**. Urriaren 16a arte emon leiteke izena, Udaleko Adinekoen Egoitzan (94 603 00 46).

- » **Dantza tailerra**, urriaren 6an hasita, martitzenero, 19:30etik 21:00etara, Plateruenean. AIKO taldeak emongo ditu eskolak.

- » **Adinekoendako urte guztiko eta ikastaroak**. Urriaren hasita. Adinekoen Udak Egoitzara jo leiteke (94 620 03 21 / 94 603 00 00 luzapena: 1710). **Tailer psikosoziala**, urriaren 20tik ekainaren 29a arte, martitzen eta eguenetan, 10:00etatik 12:00etara, Adinekoen Udak Egoitzan. Izena emotea urriaren 9a artean.

ELORRIO

- » **Dantza ikastaroak: dantza modernoa, sabel dantza, areto dantzak eta Karibeko dantzak**. Urriaren hasita, 10:00etatik 12:00etara, Iturri kultur etxean (94 603 20 32).

IPUINAK

IURRETA

- » **Alaitz Muro eta Agurtzane Villate ipuin kontalaria**, urriaren 9an, 17:30ean, Udak Liburutegian.

JAIK

DURANGO

Sanfaustoak

- » **Tortilla txapelketa**, urriaren 9an, 17:00etan, Sapuetxe gaztetxean; 19:00etan, txupinazoa, eta luntxa 20:00etan. Txiste txapelketa eta karaokea, 02:00etan.

- » **Txosnagunearen txupinazoa eta pregoia**, urriaren 9an, 21:00etan. Gero, luntxa; **Sermonds + Tribute to Rip + Gose + Delirium Tren Ez** taldeen kontzertua, 23:00etan.



- » **Erraldoi eta buruhandiekin kalejira** urriaren 10ean, 11:30ean,

- Ezkurditik Alde Zaharrera. **Broken Brothers Brass Band**, 12:00etan (baita 19:00etan be), Alde Zaharrean, eta 12:30ean **koadrilen topaketa**, Andra Marian; **Patzikotxugaz kalejira**, Udaletxe aurreko plazara. **Txupinazoa eta pregoia Tabirako saskibaloi taldearen eskutik**, 13:00ean.



- » **Motor ibilbidea Durangaldean zehar**, urriaren 10ean, 15:00etan, Montorreta industriagunetik. **Umeendako parkea**, 16:00etatik 20:00etara, Ezkurdin. **Motor akrobatikoa eta trial bizikletaren erakusketa Ros anaien eskutik**, 18:00etan, San Fausto auzoan. **Motor klasekoen erakusketa** be egingo dabe.

- » **'Gernikaren heriotza' (Alproja) kale antzerkia**, urriaren 10ean, 18:00etan, Balbino Garitonandia plazan. **Manifestazioa**, 20:00etan, Txosnaguneak erata.

- » **'Nostradamus' (Vagalume)**



kale antzerkia, urriaren 10ean, 20:00etan, Andra Marian.

- » **Mahaster River (blues-rock)**, urriaren 10ean, 22:00etan,



Goienkalen. Aldi berean, Landako Gunean, **Global Electronica jaialdia: Tony Verdi + Julio Navas + David Amo + Dario Nuñez + David Medina + PG2 + Trampas + Ivan + Ima Txilaut**. Txosnagunean, **Xarma + SM-5 (Valentzia) + Emon**.

- » **Orquesta Passarella**, urriaren 10ean, 23:00etan, Ezkurdin. Sapuetxe gaztetxean, 21:00etan, **Iletargiburu + SilikoS.O.S. + Desperdizio**.

- » **Diana txistulariekin**, urriaren 11, 12 eta 13an, 07:00etan, eta 07:30ean **Zezenak dira**.

- » **San Fausto XX. Calva Txapelketa**, urriaren 11n, 09:00etan, Murueta Torren. **Umeendako parkea**, 10:00etatik 14:00etara, Ezkurdin. **San Fausto XXXV. Marrazki**

Lehiaketa, 10:00etan, San Faustoko frontoian, eta 11:00etan Merkatu Plazan, **X. Mikologia Erakusketa** eta **IX. Mikologia Argazki Lehiaketa**; **16 urtetik beherakoendako IX. sailkapen lehiaketa**.

- » **Ponyak**, urriaren 11n, 12:00etan, Landako Parkean. **Arku-tiro gunea** be bai. Txiri-Txiri taldea, 12:30ean, Alde Zaharrean, eta, Andra Marian, 13:00etan, **Los Txikis (Bilbainadak)**. Sapuetxe gaztetxean, 17:00etan, **Mus txapelketa**.

- » **Pasai fanfarrea**, urriaren 11n, 18:00etan, Alde Zaharrean. Ezkurdin, **Kodrilen Arteko I. Lehiaketa**. Andra Marian, 19:30ean, **'Elas bailan solas'** antzezlana (**Pikor Teatro**).



- » **Tahuma Orkestra**, urriaren 11n, 22:00etan, Ezkurdin. Andra Marian, 22:30etan, **The Bon Scott Band**. Sapuetxe gaztetxean, 20:00etan, **luntxa**; 21:00etan, **Humprey K.O.**

- » **Jugimobilen eskutik trebetasun jokoak**, urriaren 12an, 10:00etatik 13:00etara, Ezkurdin (baita 17:00etatik 20:00etara be); 10:30ean, **marmitako lehiaketa**, Merkatu plazan, eta, 11:00etatik 13:00etara, **umeen xake txapelketa**, Andra Marian. Ordu berean, Landako Gunetik **Txu-txu tren** (16:30etik 19:00etara be bai).

- » **'San Fausto Jaiak' mural erraldoia**, urriaren 12an, 11:30ean, Andra Marian, eta, 12:00etan, **erraldoi eta buruhandiak**, Alde Zaharrean. Aldi berean, **txikiendako entzierroa**, Ezkurdin hasita, eta, 12:30ean, **umeendako tailerrak**, udaletxe plazan. **Kilimixka taldearen eskutik animazioa hankapaluekin**, 13:00etan, Alde Zaharretik udaletxe plazara, eta, 13:30ean, **txupinazo txikia eta pregoia**, Udaletxe bakoititik. Ondoren, **ohorezko aurreksua**.

- » **Herri-bazkaria**, urriaren 12an, 16:00etan, Andra Marian, Txosnaguneak antolatuta; 14:00etan, **kalejira eta poteoa**. **Bingo herrikoia**, 17:00etan, eta, 18:30ean, **manifestazioa**; 19:30ean, **kalejira eta poteoa**. Sapuetxe gaztetxean, 21:30ean, **kontzertua: Old Glories + Daltondarrak**.

- » **Bentazaharreko Mutiko Alaiak**, urriaren 12an, 16:30ean, Merkatu Plazan. **Moltó motorren**

kontzentrazinoa (2-5 urte), 17:30ean, Andra Maritik Ezkurdira, eta, 18:30ean, **txokolatada**. Baita **Atxikistan umeendako erromeria**.

» **‘Brokers’ (Yllana)**, urriaren 12an, 20:00etan, San Agustin kulturgunean. Andra Marin, 21:00etan, **kontzertua: Bizardunak**. Txosnagunean,



gauerdian, **Gazte Olinpiadak**, eta, 01:00ean, **erromeria**.

» **Umeendako parkea**, urriaren 13an, 10:00etatik 14:00etara, Ezkurdin, eta, 11:00etan, San Fauston, **meza. Paella txapelketa**, 12:00etan, San Fauston eta, 12:30ean, Udaletxeko plazan, **txalaparta, ohorezko aurreksua eta artopil banatzea**. Kriskitinen eskutik, **Dantzari Dantza (Platillo Soinua)** eta **Larraidantza**.

» **Nagusien bazkaria**, urriaren 13an, 14:00etan, Landako Gunean (**Rex taldeagaz**); Pinondon, **txosnen bazkaria**; eta **trapezio ikuskizuna**, 16:00etan. **Umeentzat pony eta bigantxak** eta **Incansables** fanfarrea 16:30ean San Fauston.

» **Azukillas zirko tailerra**, urriaren 13an, 17:00etatik 20:00etara, Landakon, eta, San Fauston, 17:30ean, **umeentzat jolasak eta txokolatea**. Txosnaguneak eratuta **Mañaria erreka**ren jaitsiera, 17:30ean, eta, 18:00etan, Ezkurdin, **herri-kirolak**.



» **‘Caidos del cielo’ (Ganso&Cia)** **kale antzerkia**, urriaren 13an, 18:30ean, Udaletxeko plazan; 19:00etan, **‘Balkoitik Balkoira: I. Elortza, U. Iturriaga eta X. Paia**. Andra Marian, 20:00etan, **Txarango Trio**. Txosnek eratuta **poteoa** 19:30ean (**Alaiak orkestragaz**).

» **‘La producción de acero en Altos Hornos de Vizcaya’** erakusketa, urriaren 14an, 18:30ean, Azterlan Metalurgia Ikerketa Zentroan.

 **LEHIAKETA**

BERRIZ

» **I. Eskultura Lehiaketa**. Proiektua aurkezteko azaroaren 2tik 27a arte, Kultur Etxean. Saria: 18.000 euro (94 682 40 36 / 94 682 45 84).

DURANGO

» **‘Azaroak 25, emakumeenganako indarkeriaren aurkako kontaketa laburrak eta olerkia’ lehiaketa**. Urriaren 30a arte helerazo leitekez Andragunera. Uriko eskoletako haur eta gazteak eta kanpoko eskoletako durangarrek parte hartu leikie (13-18 urte); 18 urtetik gorako sailean edonork. 100 eta 200 euro arteko liburu sortak emongo ditue; 18 urtetik gorakoen sailean 600 euro (kontaketa laburretan) eta 300 euroko (olerkietan) sariak.

» **XVI. Juanita Ibaibarriaga Literatur**



Urriaren 9an, 23:00etan

GOSE ARRASATEARREN DOINUEN BEROTUTAKO GAUA, TXOSNETAN

Trikitia eta elektronika batzen ditueen Gose arrasatearrak izango dira gaur, Durangon, Saunfaustoak atxaki. Ohiko erritmo lasai, dotore eta malguak joko ditue: elektro-jazzaren tankerako abestiak, tangoa, sehaska kanta, afro-brazilier perkusioak panderoagaz batuta batukada eginez, technoa, punka eta hard corea, arin-arina... Baina edozeren gainetik trikiaren mundua eta sekuentzia elektronikoen energia ahots gozo eta liluragarri batek lagunduta. Sermonds, Tribute To Rip eta Delirium Tren Ez be izango dira txosnetan.

Saria. Urriaren 23a arte. Euskal Birusak eta Euskara Sailak eratuta.

 **LITERATURA**

IURRETA

» **Munduko emakumeen literatur tailerra**. Urriaren 5etik, 18:15ean, astelehenero, Udal Liburutegian.

 **MUSIKA**

DURANGO

» **XI. Gau Elektronikoa: Dj Sergio Vega (Txitxarro) + Etxeko Djak: Ruben Kostas & Iker Undersound**, hilaren 9an, 22:00etan, Plateruenean.

ZORNOTZA

» **Jazz-blues zirkuitua: Bill Lyerly**

Band (AEB), urriaren 15ean, 20:30ean, Zelaieta Zentroan.

 **ZINEKLUBA**

BERRIZ

» **Umeendako zinema: ‘Up’**, urriaren 11n, 17:00etan, Kultur Etxean.

DURANGO

» **‘Walking on water’**, urriaren 15ean, 20:00etan, Plateruenean.

» **‘Agallas’**, urriaren 15ean, 20:30ean, Zugaza Zineman.

ERMUA

» **‘La teta asustada’**, urriaren 15ean, 19:00etan eta 21:30ean, Lobianon.

ZORNOTZA

» **‘Los limoneros’**, urriaren 13an, 20:00etan, Zornotza Aretoan.

 **ZINEMA**

DURANGO

Zugaza

Agora (digital)
Zuzendaria: Alejandro Amenabar
barikua 9: 19:00 / 22:00
zapatua 10: 19:30 / 22:30
domeka 11: 19:30 / 22:30
astelehena 12: 19:30
martitzena 13: 20:00



Umeendako zinema

Viki el vikingo (3D)
zapatua 10: 17:00
domeka 11: 17:00
astelehena 12: 17:00

ELORRIO

Arriola antzokia

Enemigos públicos
Zuzendaria: Michael Mann
zapatua 10: 22:30
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:00



Umeendako zinema

Up
domeka 11: 17:00

ZORNOTZA

Zornotza aretoa

Pagafantas
Zuzendaria: Borja Cobeaga
zapatua 10: 22:30
domeka 11: 20:00
astelehena 12: 20:00



Umeendako zinema

La montaña embrujada
domeka 11: 17:30

BOTIKAK

Barikua, 9
09:00-09:00
• De Diego (Intxaurrondo 22 - Durango)
09:00-22:00
• Bengoa (Jose Antonio Agirre 1 - Atxondo)
Zapatua, 10
09:00-09:00
• Etxebarria (Montebideo 2 - Durango)
09:00-13:30 (*14:00)
• Campillo / Sagastizabal / San Roma / De Diego / Unamunzaga / Balenziaga (Durango)
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
• Irigoien (Bixente Kapanaga 3 - Iurreta)*
• Larrañaga (Berrio Otxoa 6 - Elorrio)*
Domeka, 11
09:00-09:00
• Campillo (Montebideo 24- Durango)
09:00-22:00
• Deleuze Jiménez (Erreka 6 - Elorrio)
Astelehena, 12
09:00-09:00
• Sagastizabal (Askatasun Et. 19 - Durango)
Martitzena, 13
09:00-09:00
• SanRoma (Uribarri 5 - Durango)
Eguaztena, 14
09:00-09:00
• Gaztelumendi (F.J. Abasolo 2 -Durango)
09:00-22:00
• Bartolome (Gabiola 2 - Berriz)
Eguena, 15
09:00-09:00
• Unamunzaga (Murueta Torre 2C - Durango)

TELEFONO INTERESGARRIAK

SOS Deiak.....112	UDALAK	Txanporta KE94 620 36 47
DYA94 620 28 00	Abadiño94 621 55 30	Errota KE94 466 94 16
Gurutze Gorria94 681 09 49	Atxondo94 682 10 09	Gorabide94 681 24 35
Osakidetza94 600 72 00	Berriz94 682 45 84	Alkoholiko Anonim.94 415 07 51
Ertzaintza94 466 93 00	Durango94 603 00 00	Nekazal bulegoa94 681 15 20
Suhiltzaileak112	Elorrio94 658 27 12	Uren Partzuergoa ..94 681 74 86
GARRAIOAK	Garai94 681 63 93	Butanoa (UME).....94 681 08 77
Euskotren.....902 54 32 10	Iurreta94 620 12 00	Araztegia94 620 28 00
Durango94 681 02 32	Izurtza94 681 35 48	Foru Ogasuna.....94 681 07 42
Bizkaibus94 448 40 80	Mallabia943 17 14 61	INEM Durango94 681 12 96
Pesa902 10 12 10	Mañaria94 681 89 98	Gizarte Segurantz 94 681 49 58
Continental Auto945 286 466	Otxandio945 45 00 20	Epaitegiak.....94 603 00 51
TAXIAK	Zaldibar94 682 70 16	KIROLDEGIAK
Abadiño946 814 470	UDALTZAINGOAK	Igerilekua
Matiena606 459 988	Abadiño94 621 55 33	Astola94 620 29 29
Durango Geltokia.....946 811 001	Berriz94 682 40 36	Igerilekua
Goco Tour946 202 860	Durango94 603 00 10	Atxondo94 623 14 38
Tele Taxi944 102 121	Elorrio94 682 02 18	Berriz94 682 43 74
Radio Taxi Bizkaia ..944 269 026	Iurreta94 620 08 88	Durango
Elorrio Geltokia946 820 040	BESTELAKOAK	(Landako).....94 621 51 30
J.L. Uriarte670 402 002	Arriola94 658 31 92	Durango
I. Estebez670 678 273	San Agustin94 603 00 21	(Tabira)94 621 51 50
M Galeano.....946 582 854	Zornotza Aretoa94 630 01 68	Elorrio94 682 10 27
Iurreta946 201 565	Gazte informazioa 94 603 00 30	Zaldibar94 682 73 74
Taxi auzunea688 618 690		

EGURALDIA

14
22° **BARIKUA** 

Zeruan hodeiak nagusituko dira eta goiz partean, eta zaparrada bat edo beste itzi leikie. Arratsaldeko lehen orduetan hodeitza arindu egingo da. Mendebal/ipar-mendebaldeko haizea tarteka zakar ibiliko da.

16
21° **ZAPATUA** 

Hodeiak nagusituko dira eta goizean zehar zirimiria egin leike. Eguzkia tarteka bistan izango dogu. Tenperaturak antzera jarraituko dau; eguneko beroenak 21-24 °C-ren bueltan geldituko dira.

15
22° **DOMEKA** 

9
21° **ASTELEHENA** 

13
26° **MARTITZENA** 



mantangorri

rekin

Zinema etxean 4

urriaren 10etik aurrera
larunbatetan DVD bat

6 DVD

euskaraz

1. Lagundu arraina naiz
2. Heidi 3. berriro mendian
3. Betizu eta Xangaduko misterioa
4. Olentzero eta Subilaren lapurketa
5. Urtemuga festa
6. Prop & Berta




+ 4,90 €

Aukera ezazu,
BIZI euskaraz
berria

HARPIDEDUNENTZAT,
BILDUMA OSOA 26 €
ESKARIA EGITEKO: 943 30 43 45,
harpidetza@berria.info
edo www.berria.info

Babeslea: ELISKO LAJOLARITZA GOBIERNO VASCO
KULTURA SAILE
Munduko Punturatuaren Sarean

anboto, durangaldeko astekaria

Egin zaitez harpidedun



durangaldeko
bherriak
ezagutzeko

harpidedun egiteko, deitu
94 681 65 58 telefonora edo
harpidedun@anboto.org-ra
zure izen-abizen eta helbidea bidali

KIROLAK >



Argazkia: Iban Gorriti

Tatami berritzailea judoa praktikatzeko

Kolpeak arintzen dituen sistema aitzindariagaz hornitutako tatamia estreinatu du Durangoko Judo Taldeak. Tatamia Maristak ikastetxean dago eta alde bietako arduradunek klubari tatamia bost urtez erabiltzea ahalbidetuko dion akordioa sinatu zuten. Ekitaldian Victor Manuel Gaspar Cortinak —1962an judoko maila guztietan Espainiako

txapeldun geratu zenak— parte hartu zuen. Durangoko Udalagaz ere lankidetzaz hitzarmena sinatzeko borondatea erakutsi zuten.

Judo taldeko kideek Interneten aurkitu zuten tatami berezi honen berri. Denverreko judo irakasle batek sortu zuen, Ameriketako Estatu Batuetako beste ingeniari eta aditu batzuekin elkarlanean. Ethafoam izeneko

material batez hornitua, hobeto eusten die kolpeei, eta erorketak leuntzen ditu. “Kolpeak eragindako bibrazioak tatami osoan zehar banatzen ditu”, azaldu zuen Txema Carreto judo taldeko kideak. Azaldu dutenez, Getxoko Judo Taldeak ere sistema bereko tatamia jarri du, Durangoko taldeak informazioa eurekin banatu ondoren.

Estatu Batuetan sortu zuten eta kolpeak arintzen dituen sistema aitzindaria du

Tatamiaz gainera, koltxone-ta eta altzari berriak ipini dituzte. Bide pribatutik jasotako 20.000 euro inbertitu dituzte lan horietan. Aldaketa hauekin guztiekin judo taldeak aro berri bati ekin gura dio: “Orain sei urte desagertzeko zorian egon zen, eta arduradun berriek emandako bultzadari eskerrak errekuperatzea lortu genuen”, gogoratu du Carretok. Gaur egun, 4 ta 14 urteko 75 gaztetxo daude.

Aurreratu dutenez, judoa ezagutzera eman guran abenduaren 20an Nazioarteko Judo Txapeketa antolatuko dute Landakon. 9 eta 14 urte arteko 300 bat gaztetxok parte hartuko dute ekitaldi horretan. Oraingoz, Bizkaiko, Gipuzkoako, Kantabriako eta Iparraldeko 12 taldek baieztatu dute euren parte hartzea. ■ J.D.

24 Lehen Erregionaleko taldeak indartsu

Elorriokok, lurretakok eta Zalduak denboraldia txukun hasi dute. Elorriok, esaterako, zazpi gol sartu ditu etxeko partiduan, eta lurretakok oraindino ez du golik jaso.

25 lazko martxan dabil Tabirako

laz legez emakumeek indartsu ekin diote ligari. Gizonek, zoritxarrez, ez dute iazko joera apurtu. Lehenengo jardunaldian galdu egin zuten, defentsan ahul ibili zirelako.

Sasoiko hasi dira Zaldua, Elorrio eta Iurretako

Hiru jardunaldi joan dira eta sailkapeneko goiko postuetan daude



Zaldibarko Zalduak hasiera ona eman dio aurtengo 2009/10 liga denboraldiari. Judit Fernandez

Futboleant azpimarratzeko moduko liga hasiera egin dute Lehen Erregionaleko Durangaldeko hiru ordezkariek. Iurretako eta Elorrio hirugarren eta laugarren daude, eta Zaldua bederatzigarren.

Iurretakok errentagarritasun itzela atera die sartutako hiru golei. Joan zen asteburuan 0-1 irabazi zion Etxebarri, etxetik kanpora. Lekeitioren kontra huna berdindu eta Berriatuko 2-0 azpiratu zuen. Aipagarria da defentsan erakutsi duten segurtasuna; oraindino ez dute gol bakar bat jaso. Bihar Uritarra taldeak bisitatuko du Iurretako Larrakozelai.

Elorriok sekulako garaipena lortu zuen Umore Onaren kontra: 4-0. Iurretakok defentsa lanean oinarritzen badiu garai- penak, Elorriok golen bitartez erabakitzen ditu. Errigoitiri ere 3-1 irabazi zioten Eleizalden.

Etxean jokaturako partidu bietan zazpi gol sartu dituzte, zaleen gozamenerako. Kanpoan jokaturako bakarrean, berri, 3-1 galdu zuen Urdulizen kontra. Bihar arratsaldean Artibairen kontra jokatu dute.

Zalduak joan zen asteburuan galdu zuen lehenengoz aurtengo denboraldian; 2-1 Berriatukoren zelaian. Gainerako biak irabazi egin dituzte. Iurretakoren antzera defentsa gotorrean oinarritu dituzte garai- penak, eta gol bakar nahikoa izan dute hiru puntuak batzeko.

Berrizek arnasa hartu du

Berrizek garaipen baliotsua lortu zuen joan zen asteburuan. Lehen jardunaldi bietan galdu ondoren, dudak baztertzeko beharrezko zituzten hiru puntuak, eta 3-1 irabazi zioten Gurutzetari. Etzi Ugeragaren kontra jokatu dute. ■ J.D.

Tornosolo Kopa irabazi du Rober Uriartek

Abadiñarrak 40-29 menderatu zuen finalean Mikel Gonzalez berriztarra

Rober Uriartek Tornosolo Kopako buruz buruko txapela jantzi du finalean, Mikel Gonzalez 40-29 menderatuta.

Finalista biek erraz atera zituzten aurrera finalerdietako konpromisoak. Uriartek Iker Etxebarria kanporatu zuen, eta Gonzalezek Agirre urruñarra. Finala azken emaitzak aditzera

Partidu erdian lehia ia galduta zuen; 17 tanto segituan eginda, hortxe erabaki zuen finala

ematen duena baino kitzikagarragoa izan zen. Lan erdietan Uriartek aldapa gora zuen norgehiagoka (14-24). Orduan hasi zen abadiñarraren erreakzioa, eta 17 tanto errenkadan egin zituen: 31-24. Hortxe hautsi zuen finala. Partiduko bigarren zatian Uriarte jaun eta jabe izan zen kantxan, eta eroso iritsi zen 40ra. Berriztarrak lanean fin jarraitu arren, ez zuen tantoa amaitzerako orduan asmatu.

Finalaren aurretik jokaturako partiduan ezustekoa eman zuten irabazleek. Gordon eta Etxebarria faborito ziren, baina Arabiourutiak eta Ugartek irabazi zieten (40-24). ■ J.D.

Iurretakok eta Zalduak defentsa lan gotorrean oinarritu dituzte ligako euren garaipenak

Elorriok indartsu ekin dio etxean; Eleizalden jokaturako bietan zazpi gol sartu ditu

Gotzon Gomez
• Errugbi entrenatzailea



Denboraldiko erronkak

Denboraldi berriaren hasieran talde edo klub bakoitzak bere helburuak markatzen ditu, normalean betetzeko itxaropenez. Kontua izaten da jarritako erronkak bat datozen errealitateagaz. Gure aldetik, hau da, Durango Rugby Taldearen eskutik, hainbat helburu daukaguz. Klub moduan, egitura sendotzea eta ahal den neurrian herriko jendea partiduetan ikustera hurreratzea.

Taldeetako erronkak ezberdinak dira; Ohorezko B mailako taldeak mailan jarraitzea dau helburu eta erronka nagusi, eta zorte apur batez goiko postuetan egoteko aukera izan beharko leuke. Bigarren taldea barritze prozesuan sartuta dago, jente gazte asko daukagu eta hain gazteak ez garenok laguntzen saiatu beharko dogu. Neskek bat egin dabe Arrasateko neskekin, eta, ikasteaz gainera, taldeak elkar hartzen dauenean joko ona eskaini beharko leukie. Gazteen taldeak justu samar dabilz jente aldetik, eta erronka nagusitzat inguruko gazteak erakartzea eta talde horreetako kide izatea leukie; sekulako barri pozgarria hori gertatuko balitz.

Amaitzeko ez dot ahaztuko eskualdean badela beste talde bat, Elorrio Rugby Taldea. Gauzak polito dabilz egiten, eta, igaz jente aldetik justu samar ibili baziren be, aurtun badirudi jokalaria nahikoa daukiela; beraz, zorte ona elorriarrei.

Azkenik, errugbia ikustera animatu gura zaituet, bai Arripausuetara bai San Rokera: noizean behin hurbildu ikuskizunak merezi dozu eta!

Oharra: Aurtun derbia izango dogu durangar eta elorriaren artean, baina horren barri hurrengo batean izango dozue.

Adituarentxokoa

Jardunaldi gazi-gozoa Markinako pilotarientzat

Cafés Baqué Txapelketan partidu bina irabazi eta galdu zituzten markinarrek

Eguaztenean Cafés Baqué Txapelketari zegokion laugarren jardunaldia jokatu zuten Abadiñoko pilotalekuan. Lau partidu jokatu zituzten, eta denetan egon zen Markinako ordezkar bat. Kadeteetako biak galdu egin zituzten eta gazteen artekoak irabazi.

Kadeteetan faboritoek irabazi zuten; Atutxa galdakotzarrak 18-9 irabazi zion Gorosabeli, eta Etxebarria dimoztarrak

18-2 Pujanari. Gazteetan faborito biek galdu egin zuten markinako pilotarien kontra. Ansoategik 22-10 menderatu zuen Díez errioxarra, eta Urionak 22-18 Mendinueta arabarra. ■ J.D.

Gazteetan faborito biek galdu zuten Markinako pilotarien aurka

Maider Undak brontzea irabazi du Danimarkan

Maider Undak (Oletan jaio eta Otxandion bizi da) brontzeko domina irabazi du borroka librean, oraintsu Danimarkan jokaturako Munduko Txapelketan. Final laurdenetan Ochirbat Burmaa-k kanporatu zuen, baina bigarren aukeran bere aurkari biak menderatu zituen. Munduko Txapelketa batean lortu duen emaitzarik onena lortu du. Unda 11 bider izan da Espainiako txapeldun eta bosgarren geratu zen Pekingo Joko Olinpikoetan. ■ J.D.

72 pilota eskola lehiatuko dira klub artekoan

Hasi dute Klub arteko Bizkaiko Txapelketaren XIX. aldia. Aurtun 72 pilota eskola eta mila pilotaritik gora lehiatuko dira honako modalitate haue- tan: goma, pala laburra, pala, zesta, eskupilota (banaka eta binaka), frontenis eta gomazko paletan. Antolatzaileek azpimarratu dutenez, erremintan inoiz baino talde gehiagok eman dute izena. Horrez gainera, klub berri bat ere sartuko da lehian: Munitibarko Lea Montorro kluba. ■ J.D.

Indartsu hasi du liga Tabirakok jokatutako partidu biak irabazita

Gaur Gernikaren kontrako partiduan errenkadan hirugarren garaipena lortu dezakete



laz amaitu bezain ondo hasi dute liga emakumeek. Judit Fernandez

Ospatzeko gutxi errugbian, lehen jardunaldian

Ligako lehen jardunaldian ospatzeko gutxi izan zuten gure errugbi taldeek. Durango Ilarduyak maila gehienetan galdu zuen, eta Elorrio Rugby Taldeak ere galduz ekin zion ligari. DRTko gizonen bigarren taldeak 29-5 menderatu zuen, etxean, Cantabria. Nagusiek, berriz, 32-8 galdu zuten Hernaniren kontra. Oraindino nabarmenago galdu zuten emakumeek Getxoren zelaian: 62-5. Dena dela, kontuan hartu behar da mailako faborito nagusien kontra lehiatu zirela. Gernikak merezita irabazi zion Elorriori (24-22). Hala ere, Jabik bere hanketan izan zuen garaipena, baina zigor-kolpeak kanpora aldegin zion. ■ J.D.

Durango Ilarduyako bigarren taldeak bakarrik irabazi zuen, Cantabriaren kontra

Gora begira jartzeko partidua du Kulturalak

Zamudioren zelaian jokatu dute asteburuan Axier Intxaurrearren mutilek. Orain arte, etxean hiru lehiatik bi irabazi dituzte, itxura ona emanda. Azkena, Baskoniaren kontra: 2-0. Orain, liga hasiera txukuna konfirmatuko lukeen garaipena behar du etxetik kanpora.

Zamudiok etxean jokatudituen hiru partiduetatik ez du bat bera ere irabazi

Horretarako, asteburu honetan dute lehenengo aukera. Zamudiok etxean jokatu dituen hiru partiduetatik ezin izan du bat bera ere irabazi; denak berdindu ditu. Baskoniaren kontra gozatu egin zute zaleek. Kulturala lehenengo minutuan aurreratu zen markagailuan. Hortik aurrera, kontraerasora jokatu zuten. Bigarrenean Aitor Zallok itxi zuen markagailua. ■ J.D.

